



GOIERRITARRA

**Goierritarrak K.E.aren
bazkide kanpaina**

**2 goierritar
Bosniara laguntza
eramaten**

**Zerainen
baserritarren
zerrategia**

**'Navarro'
Beasainen
salbatzaile**

Arg.: M. Albisu



resti
URTEAGAREN SEMEAK, O.E.
Nafarroa Etorb. 15 - behea
☎ 88 09 77
BEASAIN

KELER

Bertako garagardoa

MIKEL ETXEBERRIA
Edari banatzailea
San Bartolome, zig
☎ 88 12 21
ORDIZIA



GOIERRITARRAK KULTUR ELKARTEKO BAZKIDE IZAN NAHI DUT NIK ERE



Urtean 1.500 pezetako kuota bakarrik ordainduta,

GOIERRITARRA aldizkaria lagundu dezakezu

Izen abizenak:

Helbidea:


Herria: Tfnoa.: Adina: .. NAN:

Lanbidea: Banketxea: Bulegoa:

Kodea: Kontu zenbakia:

LARUNBATA
MAIATZAK 31
Goizeko 11tan
KANPALDIA
Arratsaldean
Estabaidak, antzerkia...

Goieko 10'30tan
KONTZERTUA
IZURRI BERRIA MARRUMA
EXKIXU
txoznak, zikiroa, euskal erronomia, musika, herri denda, euskal giroa ...
Alternatiba
demokratikoa

LARRAITZ malatzak 31
ekainak 1
HARRI ETA HERRI

IGANDEA
EKAINAK 1
Goizeko 10'30tan
MARTXAK
Herri zutabea
AMEZKETA
LARRAITZ
Herri zutabea
ZALDIBIA
LARRAITZ
Arratsaldean
Tokola, Pirritx eta Porrotx
BERTSO SAIOA KANTALDIA
IRRINTZINA

HERRI BATASUNA

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierriarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 88 96 12
Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre eta Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon Arano,
Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Xabier Urteaga, Rufino Iraola,
Koldo Urrestarazu, Urko Irastorza,
Josune Aldabe, Edurne Albizu,
Pako Zubeldia, Aitziber Murua,
Ezkioko Udala, Josune Amondarain,
Gabino Murua, Iñaki Murua,
Goierriko ELA, Mari Jose Alustiza eta Igor Sarriegi.

Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 6.500 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN

**Aristeo Ruizen omenezko
futbol txapelketa**



Loinatz 97 ekintzen barruan, futbolak du oraingoan txanda. Futbolarekin zerikusia duten hainbat beasaindarrek, 7 jokalariz osatutako infantil mailako Igo futbol txapelketa antolatu dute. Maiatzaren 31n izango da, Loinatz futbol-zelaian, goizeko 9.30etan hasita. Era honetan, Aristeo Ruiz, Beasain futbol-taldeko entrenatzailea izana, omendu nahi dute.

16 taldek hartuko dute parte. Tartean Beasain, Idiazabal, Ordizia eta Aizkorri taldeek. 4nako 4 taldetan banatu dira taldeak, eta ligaska sistemaz, 15 minutuko partiduak jokatuko dituzte. Horretarako, Loinatz futbol-zelaiak, itxura berria hartuko du, bi futbol-zelai osatuko baitira.

200dik gora jokalarik parte hartuko dute ekimen honean. Epaileak 4 izango dira, Gipuzkoako Federaziotik etorriak, txapelketari seriotasuna eman nahi baitzaio.

Finala arratsaldeko 7.10etan hasiko da, eta sari-banaketa 19:45etan egingo da. 15 urtez gorakoek 200 pezetako sarrera sinbolikoa ordaindu beharko dute futbolariak ikusteko.

Antolatzaileek ekimen berri honen jarraipena ziurtatzea dute helburu.

Clementeren hitzaldia

Futbol giroa berotzeko, aurreko egunean, maiatzak 30, Jabier Clemente, Espainiako selekzioaren entrenatzailearen hitzaldia izango da. 'Oinarritzko futbola eta harrobia' gaia aztertuko du. Usurbe Antzokian izango da, 19:30etan.

Hitzaldi gastronomikoa

Maiatzaren 27an, berriz, Ser irrati-kateak antolatzen duen hitzaldi-gastronomikoa izango da, Aitzgorri elkartearen, 13:30etan. Gorka Reizabal izango da moderatzailea. Eta hizlarien artean, Realeko jokalaria eta teknikoren bat izatea espero dira.

BOTA BERTSOA



Jon Aiestaran

**Goierriin zer dago
faltan eta zer soberan**

Doinua: Hamarreko nagusiko edozein

Txindoki babes duen Goierri badu hamaika histori eta burura datorkit gizon haundiren zenbait irudi ta lanpostuak ere ugaltzen ari direla dirudi behingoz bederen enpresariak ez dabilta horren zuri Goierri goian edukitzea ez al dagokigu guri.

Zer dago faltan ta zer soberan gaurko gaia harrapazak ez gaude horren gaizki sobera baldin baditugu gauzak nahikoa ondo moldatzen gera ijito, bare ta azak; bilatzen hasi ezkerro noski aurki litezke akatsak baina munduan pareko gutxi du goierriarron gatzak.

**Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

ERREZETA



Mari Jose Ansalas
Urdaneta ikastetxeko
sukaldari irakaslea
Ordizia

ZAINZURI ETA GANBA MOUSSEA

Osagaiak: zainzuriak (kiloko potea), 700 gr. ganba (egositakoak), 350 gr. esnegain likidoa, 10 arrautza, gatza, gurina eta ogi birrindua.

Zainzuriak zatitu, batidora-ko potean sartu eta ondo txikitu. Ganbei azala kendu eta ondo txikitu. Ontzi batean arrautzak ondo irabiatu, gatza bota. Esnegaina, zainzuriak eta ganbak dena ondo nahastu.

Moldea gurinarekin ondo igurtzi. Ogi birrindua gainetik pasa. Nahasketa moldera bota eta labean sartu, maria bainuan, 225°-tara. Noizean behin labea ireki eta ura kontrolatu, urik gabe gera ez dadin.



Mari Jose Alustiza

Jos & Bel ileapaindegia

Udaberria aurrera doala ikusirik, momentu egokia da ileari aldaketeren bat edo beste egiteko, eta nola ez eguzkiaz piska bat babesteko.

Udan, eguzkiak, kloroak, haizeak eta kresalak kalte dextente egiten diote ileari; nahiz eta hauek, bere neurrian gustokoak izan gorputzarentzat. Badaude ilearentzako babesle edo protektore batzuk, eguzkia hartu aurretik eta ondoren emateko; ondo babesten ez bada, fibra kapilarra deshidratatu liteke eta ilea sentibilizatu, briloa eta indarra galdu eta fibra hau hausteko arriskua egoten da, are gehiago ilea luzea bada edo kolore, moldeatu edo beste teknikaren bat egina badu.

AHOLKUA

Ilea eguzkitik babestu

Protektoreak era askotakoak eta behar guztietakoak daude.

Eguzkia hartu aurretik eta uretara sartu aurretik eman beharrekoak dira batzuk. Eguzkitarako bakarrik direnak ile lehorrean ematen dira, eta gero zepilatuz, erraz alde egiten du, ilea oso goxo eta briluan uzten du. Kolorea daramaten ileei doazkie ondo. Beste batzuk, berriz, uretan denbora dextente ibiltzen direnentzat (itsasoan edo igerilekuan) dira egokiak, hauek ilea zerbait bustiago uzten dute eta barrera bat balitz bezala egiten dute. Produktu hauen iraupena

50 edo 60 minutukoa da, denbora gehiago egonez gero, berriro ematea gomendatzen da.

Beste batzuk buru azalerako bakarrik dira, 12 edo 18 faktorekoak, hauek uretarako ere balio dute. Ezin ahaztu konpentsadoreak ere, hau da eguzkia hartu edo uretan ibili ondorenerako. Txanpuak eta maskarilak, azkenik, hauek ere ileari on egiten diote.

Ile motzak

Forma aldetik, berriz, orain arte neurri luzeak eta erdi-koak egin baditugu ere, datorren udarako motza izango dugula nagusi, baina bolumen batzuekin; horretarako ile mota batzuei oso ondo doazkie moldeadoreak, hau da, kizkurtu gabe zuztarrari bolumen piska bat ematea. Abantail handi bat du honek, garbituaz joan egiten dela, alegia; iraunaldia 8 astekoa da gutxi gorabehera. Nahiz eta lan hauek ileapaindegietan egin beharrekoak izan, gero norbera etxean erraz molda ditzake.



MUJIKALIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 88 11 94
ORDIZIA



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 88 87 02
BEASAIN

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 88 17 00 - 88 17 04
BEASAIN

TXANDAKA

Senperrak!

Aurten hasi gara ikusten eta laister gehiago ikusiko ote ditugun kezkatuak nabil. Senperekoaz ari naiz bai. Herri Urrats aurten ez baita izan nik uste bezain borobila. Antolakuntza? Oso ona, tatxarik gabea. Zer orduan, mugako "erretzasunak?" Kia! Hori ere jakinekoa da eta, bizi duguna bizi dugunez, euskeraren aldeko ekintza bat gehiago da neretzat, jotzen gaituzten "mugazainen" aurrean, jomuga ez ahaztea.

Lehen, mugako ilarek (pazientziaren mugainokoe) atzeratzen zuten jende bat. Iparraldeko egoeraz kontzientziarik gabekoak ez ziren mugitzen orduan ere baina, orduan han izaten ziren batzuk joateari utzi diote. Herriko jaiak, pelotako finala, Real Sociedadek etxean jokatzeko zuela,... Batzuk "euska" eskola publikoaren jaiak izaten direla eta hori ikastola pribatuaren eguna denez, kilometroak eta beste diren bezala... Bietara edo bostetara joatea, txapel batekin bi buru estali nahi omen da. A, eta joaten den gazte asko parranda eta zurrutagatik e!

Beno, ba al dakizue zer daukadan garbi: hemen alde guztietatik aitzakiak jartzen zaizkiola euskerari eta guk aldegin orde, alde guztietatik bere alde egin behar dugula. Herri baten hizkuntzaren kasuan ez dago ez zahar ala gazterik, ez pribatu ala publikorik, ez zurrerik ala nererik, gurea baizik.

Iñaki Murua



Zer egiten duzu denbora librean?



Miren Saiz
17 urte, ikaslea
beasaindarra

Lagunekin ibili, dantza-talde batean ere banabil. Lagunekin ibiltzeko denbora gutxiegi daukat.

Lurdes Galarraga
31 urte, administraria
beasaindarra

Poteatu, lagunekin berriketan egin, afariak egin, paseatu eta ahal bada siesta egin.



Mikelar Mendia
29 urte, langilea
lazkaotarra

Kirola egiten dut. Alabarekin paseatu edo bizileketaz ibiltzen naiz batez ere. Nahi baino denbora libre gutxiago daukat.

ZALBIDE

SAGARDOTEGIA

Txitxarro eta sardinak
parrilan

© 65 21 76

ABALTZISKETA



NATUR HOUSE

DIETETIKA eta BELARDENDA

PISU KONTROLA
"PESO PERFECTO"

Urdaneta, 54 ☎ 16 02 29 ORDIZIA

Txartel honen truke kontsulta bat dohainik

ALTZAGAN, BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZA
(ORDIZIATIK 5 MINUTUTARA)



- ✗ Etxebizitza adosatua
- ✗ 90 m² etxebizitza
- ✗ 13 m² trasteroa
- ✗ 30 m² garaiea
- ✗ Lorategi/baratza
- ✗ 14.000.000 pzt. inguru

Argibideak:

ALTZAGAKO UDALA

☎ 88 37 37 - 88 11 70

ZINEA

LEGORRETA:

'Nunca te hablaran de nosotras cuando hayamos muerto'. Maiatzak 26, 20:30etan, Herri Zine-man.

BEASAIN:



'El club de las primeras esposas'. Ostirala 23: 22:15; igandea 25: 17:00 - 19:30 - 22:15; astelehena 26, 19:30.

'Agarrame esos fantasmas'. Larunbata 24: 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

'Secretos del corazón'. Ostirala 23: 22:15; larunbata 24: 19:30 - 22:15; igandea 25: 16:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 26, 19:30.

'Sobrevivir a Picasso'. Ostirala 30: 22:15.

'Mars attacks'. Larunbata 31: 19:30 - 22:15; igandea 1: 16:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 2, 19:30.

MUSIKA

BEASAIN:

Maiatzak 23, Musika Eskolako eskutik, entzunaldi didaktikoa, Usurbe Antzokian, 15:00etan.

LARRAITZ:

Maiatzak 31, Marruma, Izurri Berria eta Exkixu, 22:30etan.

LEGORRETA:

Maiatzak 31, Ordiziako Laguntasuna Errondailaren emanaldia, 20:30etan, herriko plazan.

ORDIZIA:

Maiatzak 31, kafe-kontzertua Javier Arrillaga, Pello Ramirez, Angel Unzu eta Txema Garcesen eskutik. 'Ahotsa eta gitarra' ikuskizuna eskainiko dute. 22:30etan, Barrenan.

ANTZERKIA

BEASAIN:

Maiatzak 30, Beasaingo Udal Tailerraren 'Bost duroko opera' antzerki emanaldia, Usurbe Antzokian, 22:30etan.

LAZKAO:

Maiatzak 27, Hika taldearen 'Hau komeria' antzerki emanaldia, Maizpide Euskaltegiko zinema aretoan, 21:30etan.

IKUSENTZUNEKOAK

LAZKAO:

Maiatzak 28, 'Prepirenaika ikusentzunekoa, Luis Ignazio Gonzalezen eskutik, Udaletxeko Areto Nagusian, 21:00etan.

HITZALDIAK

BEASAIN:

Maiatzak 27, Hitzaldi gastronomikoa, futbolari buruz, Aitzgorri elkartearen, 13:30etan.

Maiatzak 30, 'Oinarritzeko futbola eta harrobia', Jabier Clementeren eskutik, Usurbe Antzokian, 19:30etan.

LAZKAO:

Ekainak 4, 'Hegaztien migrazioa Euskal Herrian' hitzaldia, Migel Mari Elosegiren eskutik, Udaletxeko Areto Nagusian, 19:00etan.

ORDIZIA:

Maiatzak 23, 'Autode-terminazio eskubidea' hitzaldia, Jone Goirizelaia HBko parlamentariaren eskutik, 19:30etan, Barrenan.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Maiatzaren 23tik ekainaren 1era, Itsasuntzien erakusketa Gipuzkoako Ozeanografia elkartearen eskutik, Erakusketa-aretoan.

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Maiatzak 25, Artiako San Joana.

Ekainak 1, Gorbeara.

Ordiziako mendizaleak:

Maiatzak 25, Entzia - Legaire - Opakua.

Idiazabalgo mendizaleak:

Ekainak 1, Donostia - Zarautz.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 882007 BEASAIN



GESTORIA BIOK

(BANDRES)
ASEGUROAK

Errenta aitorpenak
egiten dira

Goierri, 12
behea

ORDIZIA

88 44 00
88 12 58

Kantu-afaria


Ordiziako Hitzaro euskara taldeak antolaturik, maiatzaren 30erako kantu-afaria izango da, Tximista sagardotegian. Txartelak Olano, Orbela, Arantxa eta Koiote tabernetan daude salgai. Prezioa: 2.500 pezeta; langabetu eta ikasleek 1.500. Kantu-afarian ondo kantatzeko, herriko elkarteekin kantu liburuxka kaleratu du Hitzarok.



Lazkao Txiki bertso-paper lehiaketa

Ordiziako Argi-Berri elkar-teak Lazkao Txiki bertso-paper lehiaketaren seigarren edizioa antolatu du. Lehiaketa 3 mailatan banatuko da: 13 urte bitartekoen maila, 14-18 urte bitartekoena

eta 1978a baino lehenago jaiotakoena. Gazteenen alorrean gaia 'kirolak' izango da eta beste bi mailatan, berriz, gaia librea izango da. Sariak: gaztetxoaren artean irabazleak 20.000 pezeta, bigarrenak 10.000 eta hirugarrenak 5.000; gazteetan: 30.000, 20.000 eta 10.000; helduek: 50.000, 40.000 eta 30.000. Lanak bidaltzeko epea uztailaren 1ean amaituko da. Argi-Berri elkartera bidali behar dira lanak.



GOARDIAKO FARMAZIAK

Astegunetan: Arriola
(Plaza Nagusia - Ordizia).

24 - 25: Urbizu (Nagusia, 8-Beasain).

31-I: Cuesta (Nafarroa etorbidea, 39- Beasain).

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Etxebizitzak:

□ Etxebizitza unifamiliarra alokatzen da Zaldibian. 88 51 02. Prontxio.

□ Pisu ederra alokatzen da Ordizian. Dei ezazue telefono honetara: 16 21 44.

Salerosketak:

□ Mendiko bizikleta salgai. Berria. 88 47 12.

□ Opel Corsa, SS-U matrikuladuna salgai. 88 18 02.

□ Solariuma salgai, berria dago. 88 26 31. Arratsalde deitu, 2.30etatik 7.30etara.

□ Mahaia, 6 eserleku, 2 altzari eta lanpara salgai. 88 26 31. Arratsalde deitu, 2:30etatik 7:30etara.

Lana:

□ Edozertan lan egingo nuke, arratsalde edo astebukaeretan. 3 urtez lanean ari-tua. Amaia. 80 65 52.

Bestelakoak

□ Zure ezkontza eguna ahaztezina izatea nahi baduzu, deitu Loinatz Kamara abesbatzari. 88 99 55.

Saldu, erosi, eskaini... nahi baduzu, hau da zure txokoa.

Iragar zaitez **GOIERRITARRA**n

124 p.k. ORDIZIA

☎ 88 96 12 - Faxe: 88 27 19

Ignacio Garmendia Goya

- ✓ Txatarra, altzairu txirbil eta metalen erosketa
- ✓ Neurri ezberdinetako edukiontzien zerbitzua
- ✓ Merkatuko salneurririk egokienak

Alderdieder, 1

☎ 80 64 29 - Faxe: 80 61 14

LEGORRETA


IKASTEK AKADEMIA

Kalitatea eta profesionaltasuna

- ✓ Eskola laguntza
- ✓ Unibertsitarioak
- ✓ Oposaketak
- ✓ Kurtsoak

Maila eta arlo guztiak
Zentru homologatua

☎ 16 01 20 Joan Iturralde, 5 BEASAIN



ondoeta

Nagusia, z/g.

Tfnoa.: 883102. Faxe: 88 0872

ITSASONDO

ALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Lan erreforma: gezurra da oinarria

Tesi faltsu bat hartu dute oinarritzat CEOE, UGT eta CCOOek esku artean darrabilten lan erreforma berriari ekiteko garaian: norbait lanetik botatzea gauza zaila eta garestia denez arazo bat bihurtu dela dioen sasiargudioa, hain zuzen.

Azken urteotako lege-riaren eboluzioa, epaite-gien interpretazioak eta eguneroko jarduna jarraitu duen edonork ondo asko daki gaur egun uga-za bat langilea kale-ratzea erabakitzen du- nean langile hori erre- mediorik gabe kalera doala, epaitegiak iraitze hori le- gearen kontrakoa dela adierazten badu ere. Ez dago beraz arrazoirik ka- lerratzea zaila dela esate- ko. Enpresariak ia nahi duenean murriz dezake plantila.

Lan harremana amaiz- tzeke uneari leporatzen zaion beste oztopoa bere garestitasuna da.

Hau ere ez da egia. Kaleratzea langilearen hutsegiteen ondorioz iza- nez gero, berori dohainik da. Arrazoi objektiboetan oinarritzen denean, lan egin izan duen urteko hogeit eguneko soldata besterik ez du jasotzen, hamabi hilabeteko mu- garekin.

Soilik kasu batean ja- so dezake langileak en- presariak 'eskandalaga- rritzat' jotzen duten urte-

ko hilabete t'erdiko kal- teordaina: Kaleratzea arrazoigabea denean eta epaitegiek horrela eraba- kitzen badute.

Berrogeita bost egu- neko kalteordainak lan- gileak enpresan eman duen denboran zehar egindako lana kontutan hartzen duela eta gehie- netan enpresariak kalera- tua langabezia gorrira botatzen dutela jakinik, inor gutxik uste izango du zenbateko hori gehie- gizkoa denik.

Komunikabideek etengabe errepikatuaga- tik egia bihurtu den ideia hau negoziatioaren abia- puntutzat hartu izana da ziur asko sindikatu es- painiarren ahuleziaren adierazgarriarik garbiena. Erreforma berri honen ondorioz kaleratzea mer- katu eta erraztu dutela ja- kitea ez da harritzekoa.

Baina behintzat orain- goan onartu egin behar- ko dute sinatzaileek akordio honek zerikusi gehiago duela abaguneaz baliatuz kaleratze merke eta errazagoa lortzeko enpresarien helburuare- kin enpleguarekin baino.

Benetan tamalgarria deritzogu UGT eta CCOOek honelako asta- keria onartu izanari. Haundiak behar du izan sindikatuon hipotekak langileontzako horren politika kaltegarriari men egiteko.

Goierriko ELA

Idiazabal,
Legorreta,
Olaberria,
Ormaiztegi edo
Zaldibian bizi
baldin bazara.

Ezkio-Itsaso,
Gabiria, Legazpi,
Urretxu edo
Zumarragan bizi
baldin bazara.

Irun,
Mendaro edo
Deban bizi
baldin bazara.

Pauso batera daukazu Foru Aldundia.

Edo pauso bakar batzuetara, zure Udaletxeraino daukazunak. Bertan utzi dezakezu Aldundira eraman beharreko edozein agiri. Eta Udaletxe horietara zuzendutako edozein gestio ere Foru Aldundian bertan egin dezakezu. Legezko epeari begira, bertan eman den une beretik balioko du. Pauso bat gehiago eman beharrik ez izateko, orain zure Udaletxean duzu Foru Aldundia.

Argibideak, aipatutako Udaletxeetan edo Gipuzkoako Foru Aldundian bertan:

482122



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Guipúzcoa
Lehendakaritza Departamentua
Departamento de Presidencia

<http://www.gipuzkoa.net>

AITZOL ASURMENDI, GOIERRITARRAK KULTUR ELKARTEKO LEHENDAKARIA: "GOIERRITARRA aldizkaria da, kultur aldetik behin tzat, goierritarrok batzen gaituen elementu nagusia"


Apirilaren 12az geroztik, Aitzol Asurmendi Goierritarrak Kultur Elkarteko lehendakaria da. 31 urte beteko ditu datorren astean. Zegamarra da, nahiz eta Ordizian bizi. Euskal Filologia ikasi eta azkeneko 7-8 urteetan Maizpiden euskara irakaslea da. Ordiziako Hitzaro euskara taldearen sortzaileetarikoa bat. Idazkari izan zen hasieran eta gaur egun normalizazio taldean dabil. Beti euskara munduan aritua. Goierritarrak Kultur Elkartea zer den azaldu digu Aitzolek, bazkide kanpaina hasi duen honetan.

- Zer da Goierritarrak Kultur Elkartea?

- Goierritarrak Kultur Elkartea Goierritarra aldizkariaren euskarri legala da. Kultur Elkartearen ekintza nagusia, hamabostero-hamabostero aldizkaria kaleratzea da. Horrekin lotuta, aldizkaria kaleratzeko gestioak egin, bideak eta laguntzak bilatzen ditu. Aldizkaria bera bideratzen du. Baina horrekin batera, hainbat kultur ekintza antolatze-ko elkartea ere bada, nahiz eta oraindik gauza handirik ez den egin.

- Zein helburu ditu elkar-teak?

- Aldizkaria kaleratzen segi eta elkarteari berari bizia emanaz, beste ekintzaren batzuk antolatzea. Buruan darabilgun ekintzarik nagusia, Goierritarren eguna



Zegamar gaztea da Goierritarrak Kultur Elkarteko lehendakaria.

edo horrelako zerbait antolatzea izango litzateke. Goierriko euskaltzaleak bilduko lukeen egun bat. Baina gutxitik hasi eta ekintza txikiekin hasi behar dugu. Orain momentuan dugun helburua, bazkideak gehitzea da.

- Zer dela eta bazkide kanpaina?

- Aldizkaria gizartean finkatuta dagoenez, momentu egokia iruditzen zaigu, kultur elkartea berari bizia ematea. Iritsi da momentua elkartea indartzeko. Horretarako ahalik eta bazkiderik gehien biltzea da orain daukagun asmoa. Horretarako kontuan eduki behar ditugu, Beasain, Ordizia eta Lazkao euskara taldeak badirela. Euskaltzaleak sutsu ari dira lanean eta jende horrengana iritsi nahi dugu, eta borondate piska batekin, ea Goierritarrak Kultur Elkartean ere lan piska bat egiten dugun.

- Zergatik egin Goierritarrak Kultur Elkarteko bazkide?

- Goierritarra aldizkaria da, kultur aldetik behintzat, goierritarrok batzen gaituen elementu nagusia. Bestela, Goierri osatzen dugun herri ezberdinak irla moduan gelditzen gara. Eta Goierritarra aldizkariaren bidez, denok dugu, edozein herritan gertatzen denaren berri. Hori aprobetxatu beharko genuke harremanak sendotzeko. Bestetik, Kultur El-

karteko bazkide eginda, aldizkaria bera lagundu eta goierritarrok elkartzen jarraitzeko hainbat ekintza egiteko aukera izango dugu. Zenbat eta bazkide gehiago arekin, aldizkariari babesa eta laguntza emango zaio. Bazkide izateko, 2. orrian dagoen txartela bete eta urtean 1.500 pezetako kuota ordaindu beharra besterik ez dago. Horrekin batera, lanerako prest dagoenik bada, guztia eskertuko da. Proiektua zabaldu eta hobetzeko aukera da. Goierri hainbeste euskaltzale daukela ikusita, bakoitzak bere aletxo jarriko balu, erre gabe ere, gauza politak egin daitezke.

Bazkide gehiagorekin gainera, elkarteari sinesgarritasun handiagoa emango zaio. Ez da berdina, elkartek 80 bazkide izan, edo 400 izatea. Horrelako kopuruetara aise iritsi gintezkeela ikusten da.

- Aldizkaria kaleratzeaz gain, orain arte zer egin da?

- Gauza handirik ez. Ma-hainguru pare bat egin dira. Kamixetak ere atera dira, eta herri gehienetan salgai daude, baita ere Goierritarraren egoitzan bertan ere.

- Beste kultur elkarteekin elkarlanean aritzeko asmorik ba al duzue?

- Euskara talde eta kultur elkarteekin harremanetan hastea oso interesgarria iruditzen zaigu. Bakoitzak bere lekua du, bere ildoari jarraitu behar dio, baina elkarlanean gauza asko egin daitezke.

- Aldizkariaren egoera zein da?

- 6.500 harpidedun ditu eta kopuru hori goraka doa oraindik ere. Herri aldizkarietan harpide kopuru handienetarikoa duen aldizkaria da Goierritarra. Hori pozgarria da oso, baina aldi berean, inprenta eta posta gastuak, goruntz doaz. Era-kundeetatik datozen diru-laguntzak, ordea, ez doaz goranzko norabide horretan.

Lan handia egiten da hamabostero-hamabostero aldizkaria kaleratzeko. Baina lan horretan ari diren lau langileak, lan baldintza nahiko kaskarretan daude. Egun erdiko kontratua dute, baina egun osoz lan egiten dute. Kultur Elkartearen helburuetarikoa bat, baldintza horiek hobetzea da.

L.A.



Etxegarateren Aldeko Plataforma zehaztasun eske

Gipuzkoako Batzar Nagusiek (EAJ, PSE-EE eta EAren aldeko botoz) Etxegarateren bikoizketa eta Eibar-Gasteiz autobidearen osagarritasuna azpimarratu eta aurrekontuak banatu egingo diren akordioa hitzartu zuten astelehenean. Dena den, Eibar-Gasteiz "lehentasunezkoa" dela zehaztu zuten, Europako ardatzaren barruan Euskal Herriko komunikabide sareko bizkarrezurra bihurtuko dela argudiatuta. IUK eta HBk salatu zuten Batzar Nagusien erabakia.

Etxegarateren Aldeko Plataformak ere ez du ontzat eman akordioa eta zehaztasunak eskatu zituen. Etxegarateko bikoizketa egitea beharrezkoa dela, eta euren eskualdeen garapenak ez duela zertan Eibar eta Gasteizen arteko autobidearekin lotuta egon. *"Baterako eta besterako duten borondatearen diferentzia argi eta garbi dago Urbina-Maltzagaren gainean erabakiak zein azkar hartzen dituzten eta Etxegarateko bikoizketaren proiektua oraindik mahai gainean dutela onartzeke"*.

Etxegarateren Aldeko Plataforma Goierrri, Tolosaldea, Arabako Lautada eta Nafarroako Sakanako alkateek osatzen dute.

Batzar Nagusiak Beasainen

Maiatzaren 16an, egoitza ofizialetik atera eta Beasaingo Udaletxeko Batzararetoan egin zuten ohiko batzarra Gipuzkoako Batzar Nagusiek. Loinatz 97ren barruan kokatu behar da ekintza hau. Beasaingo Udaleko ordezkariak, herriko jaietan berreskuratu duten soka-dantzarekin hartu zituzten diputatuak. Une eta leku berean, HBko hainbat jarraitzailek, euskal presoak Euskal Herrira ekar ditzaten aldarrikapena egin zuten.

Epaiaketak Parisen

Patxi eta Kepa Mujika Garmendia preso politiko ordiziarak epaitzen ari dira Parisen, gaizkile taldekoak izateagatik.

Ardanza Zerainen

Aldizkaria inprentan egon den bitartean, Jose Antonio Ardanza EAeko lehendakaria, Mari Karmen Garmendia Kultur sailburua eta Jaber Retegi Industria eta Nekazaritza sailburua Zerainen izan dira. Herria eta herriak eskaintzen dituen produktuak ezagutu eta 'Ze-

rain dezagun fundazioa'aren aurkezpenean parte hartu zuten. Bazkaria ere izan zuten Ostatuan. Hurrengo alean izango duzue bisitaren eta fundazio berriaren berri zehatzagoak.

Lan banaketa

Ramon Jauregi, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Lan sailburua, CAFen lan banaketa gauzatu dadin akordioa prestatzen ari da.

Barandiaran fundazioa

Barandiaran Fundazioaren Patronatu batzorde berria osatu zen maiatzaren 15ean Ataunen, Sara etxean. Estatutuak ere aldatu ziren, Fundazioari indar berria emateko eta ikerketekin hasteko. Jesus Altuna da zuzendaritza batzordeko lehendakari berria.

Alfredo Moraza

Alfredo Morazak irabazi du Ormaiztegi Zumalakarregi Museoak ikerketa historikoa sustatzeko antolatutako dirulaguntza. 250.000 pezetako beka izango du. 'Una aproximación al fenómeno de la enajenación de los comunales guipuzcoanos en el siglo XIX: las uniones de



IRAKASLE ESKOLA MONDRAGON UNIBERTSITATEA

IRAKASLE ESKOLAK zera jakinarazten du: 1997-98 ikasturterako aurreinskripzio-epea zabalik dagoela honako karrera hauetan:

● MAGISTERITZA

Espezialitateak:

- ... HAUR HEZKUNTZA
- ... HEZKUNTZA BEREZIA
- ... ATZERRIKO HIZKUNTZA: INGELESA

● HUMANITATEAK-ENPRESA Lizentziatura.

Lizentziatura honek profesional gaituak sortu nahi ditu, pertsona eta erakundeek kudeaketa, zuzendaritza eta garapenean sortzen diren eskaera eta beharrei erantzuteko prestatuak.

INFORMAZIOA:

IRAKASLE ESKOLA

TEL: 943 / 71 41 57

20540 ESKORIAT-

URBITARTE sagardotegia



- Maiatzean ere txotxetik irekita
- Sagardotegiko menuaz aparte arraina ere egongo da
- Berezitasuna txuleta eta sahieskietan

Erreserba telefonoa: 18 01 19

Ergoiena Auzoa

ATAUN

Enirio Aralar e Insusti' da lanaren izenburua. Lanaren helburua XIX. mende hasiera komunalen salmenta prozesua aztertzea da.

Eskolarteko bertsolari txapelketa

Gaur, maiatzak 23 jokatu da Gipuzkoako Eskolarteko bapateko bertsolari txapelketa, Usurbilen. 14 urte bitartekoen mailan, Goierriko taldea dago finalean. 15 eta 18 urte bitartekoetan, ere, 3 goierritar daude: Ekaitz Goikoetxea eta Haritz Zerberio beasaindarrak, eta Alaitz Sarasola ordiziarra. Emaizten berri hurrengo alean izango duzue.

Mieltxo Saralegi

326 kiloko harritzarra jaso eta marka hautsi zuen Mieltxo Saralegik Beasainen. Izeta II.a harrijasotzailleak ere marka hautsi zuen, 125 kiloko harri kubikoa, 3 minutuko txanda bakarrean 24 aldiz jaso baitzuen.

K2

Joxe Ramon Agirre 'Marron' ataundarra eta Mikel Saez de Urabain ordiziarra K2 mendira igotzeko abiatuko dira maiatzaren 20an. Ekainaren amaierarako saioaren bat egiteko asmoa dute mendizaleek, eta uztailaren bukaerarako etxean egotea. Munduko bigarren gailurrik altuena da K2, 8.611 metro.



Alternatiba Demokratikoaren aldeko festa Larraitzen

Goierri eta Tolosaldeko Herri Batasunako komiteek antolatuta, Alternatiba Demokratikoaren aldeko ekitaldi sorta bat burutuko da Larraitzen, maiatzaren 31n eta ekainaren 1ean, 'Harri eta herri' lemapean. Asteazkenean zehar egingo dituzten ekintzen puntu gorena izango da datorren asteburukoa. Ordizian esaterako, gaur, maiatzak 23, 'Autodeterminazio eskubidea'-ri buruzko hitzaldia izango da, Barrenan, 19:30etan. Hizlaria Jone Goirizelaia HBko parlamentaria izango da. Zaldibian ere izango da beste hitzaldi bat, lurraldetasunari buruzkoa. Eguna oraindik zehazteko dago.

ETAk duela 2 urte aurkeztu zuen Alternatiba Demokratikoa deritzan bake proposamena plazaratzeko ekimen honekin, "Gipuzkoako abertzale eta demokratik" bildu nahi ditu HBk. Leku aproposa omen da Larraitzen horretarako. "Larraitzek Euskal Herriaren aska-

tasunaren aldeko borroka-
rekiko lotura estua. Franco garaian ere antzeko ekitaldiak burutu izan ziren, indar polizialen erasoak tarteko. Oraingoan berriz, Nafarroa-Txindoki-azpiko zelaiak mende amaierako egoera politikoaren lekuko izango dira berriro ere, bertan Herri zahar honen historian burujabetzaren aldeko borrokaren orri berri bat idatziko da asteburu horretan".

Natura, jaia eta Euskal Herriaren aldeko borrokak bat egingo dute Harri eta Herri izena hartuko duen ekitaldian. "Harriak Euskal Herriaren kultura eta nortasuna berreskuratzeko ditugun oztupoak eta bitartekoak sinbolizatuko ditu. Nola bait esateko, Estatu frantses eta espainiarrek ezartzen ditugun hesiarekin batera, harriak irtenbidea aurkitzeko dagoen gakoak zein den ere adierazi nahiko du, Alternatiba Demokratikoa, alegia. Herriaren ka-

sua, garbia da, harriarekin uztarturik azaltzen zaigun Euskal Herria, menpekotasunean behartua eta askatasun egarritz bizirik azaltzen zaigun", dio HBk.

Datorren astebururako antolatu dituzten ekintzen egitaraua duzue jarraian:

● Maiatzak 31, larunbata: gazte topaketa

11:00etan: Partaideen harri eta kanpaldiaren eraiketa.

13:00etan: Ekitaldi eta egitarauen aurkezpena.

17:00etan: Hitzaldiak, mahainguruak, erakusketak.

19:00etan: Antzerkia.

20:30etan: Afaria.

22:30etan: Kontzertua: Marruma, Izurri Berria eta Exkixu.

● Ekainak 1, igandea: Alternatiba Demokratikoaren aldeko ekitaldia.

10:30etan: Oinezko mar txak Zaldibia eta Amezketatik.

12:00etan: Ekitaldi politikoak.

13:00etan: Euskal erromeria: dantzariak, trikitilariak, txarangak, e.a.

15:00etan: Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak.

16:00etan: Herri kirolak.

17:00etan: Bertso saioa: Harri eta herri.

18:00etan: Kantaldia: Joxemi Marti eta taldea.

19:00etan: Dantzaldia: Irrintzina.

GOIERRITARRA



88 96 12



GOITGI OKINDEGIA

Ogigintzan onenak!

Etxezarreta z/g
ORDIZIA ☎ 160501

- ◆ Egurrezko labean egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak

Barandiaran Taldea,2
ZALDIBIA ☎ 880737

KORO BOSQUE ETA MARI JOSE ANSALAS BOSNIARA LAGUNTZA ERAMATEN: "Gogorra da Gorazdeko ospitalera mantak, izarak eta janaria norberak eraman behar dituela ikustea"

Ordiziako Koro Bosque eta Mari Jose Ansalas, Aste Santuko oporrak aprobetxatuz, Bosniara joan ziren. Ordizian bizi diren errefuxiatu bosniarrak, hainbeste urte pasa eta gero, beraien herria bisitatzea joateko asmoa zuten. Egoeraren gogortasunaz jabeturik, Korok eta Mari Josek laguntzea erabaki zuten. Ikusi zutenaren testigantza eman digute biek.

Sos Balkanes elkarteak antolatutako autobusean joan ziren Italiara. Handik Splitera ferrian. Zadarrera iritsi ziren martxoaren 28an. Mostarrera ondoren. Hantxe hasi ziren gerraren ondorioak ikusten. "Dena puskatuta zegoen. Bidaia guztirako markatuta utzi gintuen. Edozein leku edo parketan hilerriak zeuden, eta haurrak baloiarekin hantxe jolasean. Granadaren eta metrailaren seinaleak leku guztietan zeuden".

Mostarretik, Gorazdera. Han egon ziren, Bejia errefuxiatuaren gurasoen etxean. "Gorazdetik 17 kilometrorra bizi dira mendian, txabola batean. Komuna kanpoan daukate, adibidez".

Gorazde, serbiarren lurraldeen artean dagoen irla bat da. Kanpotik oso laguntza gutxi iristen da. "Gorazdera joateko serbiarren lurraldeetatik pasatu behar



Ordizian hazi dira Leyla eta Emina ahizpa bosniarrak. Puskatutako etxeak eta autoa ikusten dira argazkian.

da. Orduan, arriskatu beharrean, Sarajevon gelditzen da dena".

Dena puskatuta dago Gorazden. "Etxe guztiak puskatuta daude. Jendeak ondoen dauden etxeak hartu eta han bizi dira. Bizitzeko moduan dagoen lekuetan bizi dira. 4 izarreko hotel bat dago, baina ez du hotel bezala funtzionatzen. Herritarrek hotela okupatu dute. Gela bakoitzean familia bat bizi da".

Tajuz ez omen dago ezer ez. Argia eta ura, tarteka moztu egiten dute. Ura gainera ez da edangarria eta mendira joan behar dira ur edangarriaren bila.

Gorazdeko ospitalea ere horren lekuko da. "Ez zeukaten ezertxo ere. Mantak, izarak eta janaria etxetik eraman behar dute. Probetarak, analisi poteak... garbitu eta berrirori erabiltzen dituzte. Haurdun zegoen emakume bat, hantxe zegoen bakar bakarrik, gela batean, kontrakzioekin. Haur jaioberriak ere era kuriosoan 'jantzen' zituzten. Jantzirik

ez dute. Guk hemen ipurdian jartzeko erabiltzen genituen gasak, ipurdian eta aurpegian jarri, eta gainetik manta bat jartzen diete. Ondoren, sokarekin lotzen dituzte, haurra mugitzen denean, arroparik gabe gera ez daitezten".

Ordiziatik eraman zuten diruarekin, mantak, izarak, toailak erosi zituzten. "Ospitaleko zuzendaria erabat hunkituta gelditu zen. Inoiz ez omen da joan inor ezer agindu gabe ezertxo ere eramatera, nahiz eta ospitalea ikustera jende asko pasatu".

Aurpegi alaiak

Eskola ere halamoduz dago. "Gorazdeko oinarritzko eskolan 1.100 haur dabilta. Gela bakarra daukate konponduta, eta berau ere kristalik gabe. Kristala lujoa da". 7 urterekin hasten dira eskolan. "Libururik ez dute eta beraiek egiten dituzte beraien liburuak. Guk hemendik, Urdaneta ikastetxean bildutako hainbat material eraman genien: arkatzak, kuadernoak... 4 ordu

bakarrik dituzte eskolan, baina etxean izugarritzko lanak egiten dituzte. Gurasoak asko inplikatzeko dira". Gerrak iraun zuen bitartean eskolara joan ziren. "Etxean edo kalean hiltzea berdin zela eta, bizitza normaltasunez eramaten saiatu ziren".

Dena den, pozik atera ziren eskolatik. "Ez genuen aurpegi tristerik ikusi haurretan". Helduetan ere, normalean ez. "Bizitzeko gogo daukate. Askok sufritu dute, baina aurrera egin behar dela diote eta gogo handia daukate".

Lan egoera aldetik, oso txarra dela diote ordiziarrek. "Han gizonezkoak militarrek edo poliziak dira, bestelako lanik ez dago. 30.000 pezeta azpitik irabazten dute. Eta bizimodua hemen bezala dago. Esne litro batek adibidez, 85 pezeta balio du. Kafe batek 150 pezeta inguru. Patatak jaten dituzte, erreta, labean, egosita... Haragia oso gutxi dago, eta oso garestia. Harategiak ere oso zikinak daude, nik han behintzat ez nuke erosi. Tabernetan, bi litroko coca-cola eta fanta eta kafea besterik ez dago". Zigarroa asko erretzen dute, kafea hartu ere izugarri. "Astakeria handiak egin dira. Behi bat tabako pakete bategatik saltzen zuten, beharbada bihar hilda egongo naiz esanez. Dirurik ez daukate, baina izugarri erretzen da. Emakume zahar guztiek erretzen dute. Etxe batera joaten ginenean, beti kafea ateratzen ziguten. Agian beste esanahiren bat izango

du kafeak”.

Gehienak elbarriak dira, fisikoki ez bada, psikoki. Gorazden 38.000 lagun bizi dira gaur egun. “Bertako alkateak esan zigunez, errefuxiatu guztiak itzuliko balira, ezinezkoa izango omen zen denak herrian bizitzea”.

Gerra garaian oso zigortua izan zen Gorazde. Hildako asko izan ziren. Janaria lortzeko esaterako, “jendea menditik joan behar izaten zen, 60 kilometrora. Erdiak baino gehiago bidean hiltzen ziren. Serbiarrek poltsak jartzen zituzten lurrean, janariz betetako poltsak izango bailiran, hartzera joan eta minak lehertzen zitzaizkien”. Hegazkinez suminstroak bidaltzen hasi zirenean ere, parakaidas bidez, azpian jende asko harapatu omen zuten.

Sarajevo hobeto

Sarajevo ezagutzeko aukera ere izan zuten Korok eta Mari Josek. Beste gauza bat omen da, laguntza iristen baita. Zenbait eraikuntza eta auzo berreraikita eta konponduta ikusten dira. “Kalean mugimendu gehiago dago, kotxe asko ikusten dira...”

Umezurtz-etxea esaterako, berritu egin dute. “Hasieran ez genuen sartu nahi, baina nahiko pozik atera ginen. Haurrak oso ondo zainduta daude, garbi-garbiak. Baina hori bai, ez daukate janaririk. Guk ahal izan genuen esne eta papila



guztia erosi eta eman gienien. Bi egun eta 6 hilabete bitarteko 40 haur daude bertan”.

Sarajevoko bitxikeria bat kontatu digute. “Gerra garaian osoan, trena martxan egon zen. Eskerrak horri, Sarajevo oso handia baita”.

Gorazdetik Sarajevora joateko errepiderik ez dago. Korredore edo pista bat bakarrik dago, granada zuloz beteta. Serbiarrek kontrolatzen dute.

Bosniarren lurraldeetan serbiarrek bizi dira, baina serbiarren lurraldeetan bosniarrik ez. “Sartu ere ez dira egiten, suizidatzea izango litzateke sartzea. Hango lagun batek gizona serbiarren lurraldean dauka lurperatuta, baina serbiarren lurraldean dagoenez, ezin da joan”. Gorazde momentu honetan ez omen dago batere seguru, “serbiarrek hartu nahi baitute. Serbiarren lurraldearen erdian dagoen irla txiki bat bezala da Gorazde. Hitzez lortu nahi dute, baina ez dakigu zer

gertatuko den. Bosniar asko serbiarren etxeetan bizi dira, ahal duten lekuan. Baina serbiarrek beraien etxeak berreskuratu nahi dituzte. Oraindik arazoa ez da bukatu”.

Serbiarrek ondo bizi direla diote ordiziarrek. “Mostarren garbi ikusten da. Bosniarren aldea dena puskatuta dago eta serbiarren, txuri-txuri, dena konponduta. Gerran gehiago irabazi dute”.

Pozik baina triste

Behija oso pozik etorri zen Bosniatik, familia ikusi baitzuen. “Baina orain nahiko baju dago, depresioarekin. Ni zein ondo bizi naizen eta haiek nola dauden pentsatzen jarri eta oso gaizki ari da pasatzen. Behiak ez dauka Bosniara itzultzeko asmorik. Alarguna da eta alargun batek ez dauka ezertxo ere han. Gizon batekin gaizki, baina bakarrik ezinezkoa. Haurrak gainera, hemen hazi dira. Bere gizona bizirik

egongo balitz, Ordiziara ekarriko lukeela dio. Han emakumea oso gaizki dago. Beste kultura bat da. Oso pozik dago Bejia Ordizian. Berak dioenez, sekulan ez da inoiz hain ondo bizi”. Leyla eta Emina alabek nahiko gaizki pasatu omen zuten bidaian. “Dena puskatuta ikusten zuten. Baina orain badakite familia bat badaukatela”.

Une honetan Behija eta bi alaba; eta Behijaren koinata eta semea bizi dira Ordizian. Bi emakumeak alargunak dira.

Datorren urtean, udan, Bosniara berriz joateko asmoa dute Korok eta Mari Josek. Laguntza jaso nahi dute ordurako. Oraingoan ere eman dute: Urdaneta ikastetxetik dirua eta materiala bildu zen; Udalak dirua eman zuen; eta partikularrek ere dirua. “Guk dirua eman genuen, eta han egin genituen erosketak, dirua han gelditu zedin”.

Faltarik handiena ospitalean ikusi dute. Hori dela eta, hemengo ospitaleekin harremanetan jarri nahi dute, ahal dutena bidaltzeko. Dirua biltzeko kontu korronteren bat irekiko dute.

Korok eta Mari Josek aitortu digutenez, gogorra izan da bidaia, eta baita itzulera ere. Baina badakite Gorazden orain beste familia bat daukatela.

Loinaz Agirre

OPS Ingenieros S.L.

✱ Topografiako Lanak: lur neurketak, balorazioak.

✱ Nekazal proiektuak: bideak, ur deposituak, etxebizitzak, granjak, nabeak...

☎ 18 00 84 - 18 00 33



- Mediku akupuntorea
- Pisuaren kontrola
- Estetiziena

Santa Maria, 8 ☎ 88 12 11

ORDIZIA

Zerralan: baserritarren elkarlanerako urratsa

Zerain, Zegama, Segura, Mutiloa eta

Idiabazabalgo baserritarrak elkarturik, zerrategia jarriko da martxan laster Zerainen. 'Zerralan' elkarteak sortu dute, eta bazkidea egiten denak nahi adina egur mozteko aukera izango du. Xehetasun gehiago ondorengo erreportaian duzue.

Diru publikoarekin lagunduta doa proiektua, Goimenen, 5 udal (Zerain, Zegama, Segura, Mutiloa eta Idiazabal) eta Partzoneriak lagunduta. Zerainek terrena utzi du. Idiazabalgo eta Zegamako udalak ere eskaini zuten lurra zerrategia eraikitzeko, baina Zerain erdibidean dagoenez, han egitea erabaki dute.

Karro bat eta bi zerrazinta daude zerrategian. Zerrak haundia oholak egiteko eta beste txikia, egurrak moztu edo piketei punta ateratzeko. 25 x 14 metro ditu pabiloiak. Aurrekontua 10 milioitik gorakoa da. Zerrak Garzeiztik ekarri dira, bigarren eskukoak.

Arduradun bat jarriko da bertako lan guztiak egiteko: ordua jarri, zerratu... "Zerra konbentzional bat orduko asko kostatzen bada, hemen



gastuak jaitsi nahi dira, generadore bat jarriko da argi-indarra sortzeko, eta bertan arduradun bat egongo da. Beraz baserritarrak, generadorearen erregaia, arduradunaren orduak eta bote baterako zerbait ordaindu beharko du".

Etxeko egur onak (haritz, gaztaina, akaziak...) zerratu dira zerran. "Etxean zuhaitz on bat edo batzuk izanez gero, zerratu eta gero etxean edozertarako erabil daiteke, berrikuntzaren bat egiteko, teiltatua berritzeko, altzariak egiteko... Beste bati saldu eta hark etekina atera beharrean, berak ateratzen dio etekin hori".

Zerralaneko bazkide izateko baldintzak hauek dira: Zerain, Zegama, Segura, Mutiloa edo Idiabazabalgo herritarra izatea, edo eta, 5 herri hauetan basoa izatea. Bazkideak 25.000 pezeta ordaindu behar ditu. "Behin zerra martxan jarri ondo-

ren ere bazkide egin liteke baina beste baldintza okerrago batzuetan, diru aldeetik behintzat". Hasera batean behintzat egurra bazkideek bakarrik zerratu ahal izango dute. Momentuz 70 bat bazkide dituzte. Idiazabalen oraingoz ez da inor apuntatu baina "Udala interesatuta dago bera bazkide izateko, egunen batean bertako baserritarren bat interesatuta badago ere".

Oraingoz zerra lana bakarrik egingo da. Goimeneko teknikariak, Joxean Garmendiak adierazi digunez, "ez da nahi zerra bakarrik izatea, baizik eta elkarte zabalagoa, beti ere baserritarren alde. Beraiek elkarteak daitezela eta beren beharrei aurre egin diezaiotela, makinak gordetzeko lekua dago, egunen batean makinari elkarte bat sortu nahi bada, baita minerala edo gasoila denak batera ekarri eta gero banatzeko..."

Aspaldiko asmoa

Aspaldiko asmoa da zerrategiarena. Baserritar multzo baten ideia da, gero Goimene heldu zion eta udalak ere sartu ziren. "Lehen baserritarrek etxe inguruan izaten zuten zerra txikiren bat, pixkanaka ixten joan dira hauek eta zerra haundiak bakarrik geratu dira. Orduan baserritar bat bere 4 egur zerratzeri joaten bada, ez die kasurik ere egiten. Behar honi aurre egiteko jarri behar da martxan zerra hau".

Lehen Zubiberriko (Zeraingo bidegurutze ondoan) zerrategia zegoen, itxi egin zen eta erosi edo alokatzeko aukera egon zen baina ez ziren akordio batera iritsi eta beste batek hartu zuen biltegi bezala erabiltzeko. Alokairu altua ordaintzea baina hobe ikusi zen zerrategi berria eraikitzea.

Elkartzeko kulturarik ez

Baserritarrak elkartzen has-teko lehen urratsa da zerrategia. Garmendiak esan digunez, "elkartzeko kultura hori ez dago oraindik, baserritarrek bakoitzak bere aldetik funtzionatzen dute, baina horrela ez dago aurrera ateratzerik, elkartuta gauza gehiago egin litezke. Horrelako proiektuak lehenengo pausoak dira".

M.A.



☎ 88 55 00 ORDIZIA

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba

MOTA GUZTIETAKO pentsuak, ongarriak, lantresnak

Esuskal Herria Kalea
Industrialdea

☎ 88 04 15
☎ 16 07 07

ORDIZIA
OLABERRIA

ORDIZIA

Gazte ekimena indarrean

Izan ere Joseba Insausti eta Denis Lopez, ordiziarra bata goiaztarra bestea, egungo egoera latza alde batera utzi eta baserri bat alokatu nahian dabilta helburu bakarrarekin, bertatik bizitzea. Egun Fraisoro Nekazal Eskolan dabilta bi gazteok LHko azken urtean murgilduta. Hau bukatu ondorengo aukerak mugatuak; lana egin beste baten kontura granja edo negutegiren batean edo bestela unibertsitatera joan peritajeren bat egitera. "Baina guk ez dugu honelakorik nahi, ez dugu beste baten kontura kondizio txarretan lan egin nahi", zioten bi gazteok.

Gurasoen aurreneko jarrrera oposizioarena izan bazen ere, gauza serio zihola ikustean konbentzita geratu dira eta erabateko laguntza eman diete semeek baserria bilatzera orduan. Joseba adibidez gurasoen nahiaren kontra hasi zen Fraisoron.

Baserri bat alokatzeko nahi hori nola sortu zen galdetxean honakoa erantzun ziguten: "hobby bezela oilo batzuekin hasi ginen, gero hegazti batzuk trukatzeko ginituen bion artean. Biok baserrikoak garenez ardi gutxi batzuk ere bagenituen etxean eta zainketa lanetan hasi eta gero gustoa hartu eta sozio izateko ideia sortu zen. Udazkenean ardi batzuk erosi eta dagoeneko hasiak gara esnea eta gazta kooperatibari saltzen".

Ardiak erosi zituzten baina ondoren hauek gordetzeko lekua behar zen. Hemen topatu dituzte momentuz Denis eta Josebak oztoporik handienak. "6 hilabete be-



har izan ditugu itxurazko baserri bat topatzeko Zaldibian. Arazoa hor dago ez dagoela nonnahi zuk nahi duzun baserririk. Asko esaten da gazteei lagundu behar zaiela baina errealitatea kontrakoa da. Gazteak baserria alokatzeraz joatean beti egiten diete muzin edo aitzakiak jartzen dituzte. Mesfidantza da nagusi, ez dela ordainduko edo terrenoak ondatuko direla..." biek azaldu dutenez. "Guk aurrena bion arteko elkarte bat sortu nahi genuen. Baina Elkartea non? Ordizian zaila espropiazioa dela eta. Goiatzen terreno gutxi. Beraz, aparteko terreno bat behar genuen, errentan hartu behar genuen tokiren bat. Bila hasi eta inguruko baserri gehienak hartuta zeudela ikusi genuen. Bakarren bat aurkitzen genuen baina oso baldintza eskasetan. Gipuzkoako baserri asko argirik gabe dago oraindik eta beste askotara heltzeko ez dago biderik" Josebak azaldu digunez.

Ez dute, beraz, erreztasun handirik topatu bi gazteok beren nahietara mugatzeko den baserri bat topatzeko. Beren nahia Goierri alokatzearena zen baina hemen baserri gehienak 2-3 hektareatakoak dira. Goierri

deskartatu egin zuten ia erabat, auzoko batek Zaldibiako baserri baten berri eman zien arte. Bidez oso ondo omen dago, terrenoak ondo zainduta eta batera daude, Aralar inguruan du. "Mankomunitatean sartzeko aukera ere badaukagu ordiziarra naizelako eta, beraz, etorkizunerako Aralar bertan dago. Gainera borda bat ere badaukagu Txindoki azpikaldean. Zaldibiako etxe horrek inbertsio txikia suposatuko liguke, nahiko litzateke ganbaran gela bat habilitatzea gaztak egin eta bertan lo egiteko eta ikulua txukuntzea".

Orain Denis eta Josebak 100 ardi inguru dituzte eta uda Goiatzen lagun batzuk utzitako terrenoetan pasatzeko asmoa daukate. Ondoren udazkenearako 150-200 ardi elkartzekotan dira eta gauzak ondo badoaz Zaldibiako baserrian kokatzea. Etorkizunean Idiazabalgo Gaztaren denominazioan sartzeko nahia agertzen dute, gaztetan baitago apustu honen irtenbidea. Baina ez dira horretan bakarrik espezializatuko, behiak, oiloak, basogintza... denak dituzte buruan. Heburua, beraz, garbi dago baserritik bizitzea dela.

Aitor Calvillo

Dantzari txiki eguna ekainaren 1ean

Ekainaren 1ean ospatuko da. 10etan taldeak elkartu eta 11etan herrian zehar, auzoetatik abiatuz, dantza saioak eskainiko dituzte. 9 dantza-talde etorriko dira: Zaldibiko 'Iztueta', Beasaingo 'Aurtzaka', Lazkaoko 'Oin-Arin', Urretxuko 'Lurra', Lasarteko 'Erreka', Dulantziko 'Haize', Goizuetako 'Umore-Ona', Oretako 'Ereintza' eta Ordiziako 'Jakintza'.

12:30etan jaialdi nagusia izango da Joxemiel Barandiaran enparantzaren. Eta ondoren, 14:30etan, herriko etxetara joango dira bazkaltzera. Antolatzaileek adierazi dutenez, dantzariak etxean hartu nahi dituenak, Aranako lokalean arratsaldeko 6.00etatik aurrera eman dezake izena. Arratsalde partean, berriz, berbena izango da Plaza Nagusian.

Egunarekin bukatzeko, oroigarri bana emanaz agurtuko dituzte talde gazteak.

1947 jaiotakoek bazkaria

1947ko belaunaldikoak diren ordiziarren edo bertan bizi direnen (emakume nahiz gizonezko) bazkaria antolatu da ekainaren 8rako. Izena ekainaren 1a aurretik eman behar da Olaso tabernan edo Klaratxo dendan.

BEASAIN

Antzerki tailerrak 'Bost duroko opera' aurkeztuko du



Udal antzerki tailerreko hainbat partaide.

Urtean zehar prestatutakoa jendaurrean azaltzeko garaia heldu zaio Udal antzerki tailerrari. Bertolt Brechen 'Bost duroko opera' lana prestatu dute. Ane Garmendiak itzuli du obra. Antzezlanaren haria hauxe duzue: bost duroren atzetik datoz batzuk Europara, hobeto bizitzeko esperantzarekin. Beste batzuk, Peachun andrea eta jauna kasu, bost duro horiek kentzen saiatuko dira trukean beraien enpresako eskale lanpostua eskainiz. Bost duroak lortzeko azkeneko bidea lapurtzea izango da, beraz horixe egiten dute Mackie Labana eta bere koadrilak. Dirua lortzeko borroka honen erdian, Polly, Peachun andrearen eta jaunaren alaba, Mackie Labanarekin ezkontzen da, hau zein den jakin gabe. Historiaren

amaiera ez da benetako amaiera bat izango... antzerkiko amaiera bat baizik.

Rosa Rojoren zuzendaritzapean arituko dira 17 aktore. Asier Lopez Markie Labana izango da; Egoitze Lasa Peachum andrea; Miguel Angel Cordero Peachum jauna; Johana Fuentes Polly; Larraitz Idameta, Oihana Larrañaga, Amaia Garrido, Maider Agirre, Eider Mujika eta Ana Barrero lapurrak izango dira; Nagoire Mendoza, M. Luz Torreño, Edurne Asensio, Estrella Sanchez eta Irati Imaz eskaleak; Gorka Zubeldia apaiza eta polizia; eta Aitziber Zubeldia aurkezlea.

Herriko artisten lanak ikusi nahi dituenak, maiatzaren 30ean, gaueko 22:30etan du zita, Usurbe Antzokian.

Baliogutxitei norbanakako laguntzak

Minusbalioak dituzten pertsonentzat laguntza teknikoak eta bestelako prestazio indibidualak eskatzeko epea irekita dago. Laguntza motak: asistentzia espezializatua, laguntza teknikoak eta aparteko laguntzak. Laguntza hauen eskaera, Gizarte-Laguntzailearen bulegoan aurkeztuko dira, 885904 telefonora deituz. Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 23an bukatuko da.

Telefono fakturak euskaraz

Udalak Telfonicako telefono-fakturak euskaraz jasoko ditu, eta herritarrak ere aukera honetaz baliatzera animatzen ditu. Horretarako, azken telefono-fakturarekin batera jaso duzuen eskaeragutuna Telfonicara bidali behar da. Informazio gehiago Udaleko euskara-zerbitzuan duzue (887512).

Sarituak

Kutxak Beasaingo Udalarekin euskararen erabilpena bultzatzeko sinatutako hitzarmenaren barruan, Kutxazain automatikoa euskara erabiltzeko kanpaina martxan da. Uztailera bitartean 3 irati-kasete zozketatuko dira. Apirileko irabazleak hauek dira: Jesus Diez Hernandez, Iñigo Insausti

Urrestarazu eta Miren Kar-mele Mujika Alustiza. Kutxatik eta Udaleko Euskara-zerbitzutik jakitera eman dигutenez, apirileko erabiltzaileak 681 izan dira (orain arte baino % 2 gehiago).

Udal euskaltegiko afaria

10. urteurrena dela eta, ekainaren 20rako afaria antolatu du Udal Euskaltegiak. Irekia da. Plazapean izango da 2.500 pezetaren truke. Txartelak ekainaren 4a aurretik jaso beharko dira euskaltegian bertan.

Jaietako emaitzak

Jatorrizko produktuak: Gabiriko Agerre-berri baserriko Maria Etxezarreta.

Barazki onenak: Beasaingo Murugoene baserriko Inazio Aranburu.

Posturik dotoreena: Gabiriko Agerre-berri baserriko Maria Etxezarreta.


Loretan: Zaldibiko Azanza.

Lagunarteko futbito txapelketa: Zumazuritzek Zurrek taldeari irabazi zion.

Urrezko barea: Ixabel Olano andereñoak jaso zuen.

Sukaldaritza: Murumendi elkarteak irabazi zuen.

Erakusleihu lehiaketa: San Martin autozerbitzua.


ARRIZAR BODEGOIA
 Eguneroko menua 850 pezeta
 astelehenetik ostiralera,
 12:30 etatik 15:00 etara
Zaldizurreta, 7 ☎ 88 98 44 BEASAIN


ARANDIA
Garaiea
 AUTOEN KONPONKETA
 LADA
 Ssang Yong
 N-1, z/g
 ☎ 88 09 47
 Iurre Auzoa
OLABERRIA


Lirain
Lurrindegia eta opari gaiak
CHANEL produktuak
 San Inazio, 14 ☎ 8893 90 BEASAIN


ALTZAGA

Orain dela 7 urte Altzagak berriro bere udala eskuratu zuenean helburu nagusiatarikoa azken urteetan jasaten ari zen despopulazioari neurriak hartzea zen, horretarako behar ziren lurzoruak eskuratu eta etxebizitzak egiteko aukerak emanez.

Berehala ekin zitzaion behar ziren jestio guztiak egiteari, proiektua egin, lurzoruen jabeekin hitzegin, herritarrekin bilerak, etab. Ordiziatik 5 minutura ego-teak eta toki oso babes eta lasaia izateak, jendea erakarriko zuela eta helburu hau gauzatuko zela ziur ikusten baitzen.

Foru Aldundiak martxoaren 25eko Diputatuen Kontseiluan onartu du "Babes Ofizialeko" 8 etxebizitza eraikitzeko aurkezturiko

Babes ofizialeko etxebizitza berriak



proiektua. 2 eraikuntza izango dira, bakoitza 4 etxebizitza "adosatu" era-koaz osatua.

Etxebizitza hauek Altzagako herri gunean kokatuko dira, herriko sarreran, sagardotegiaren alboan dagoen ordekan hain justu, esan bezala babes ofizialekoak izango dira, 90 metro karra-

tu (3 logela, egongela eta sukaldea), garajea, trasteroa eta lursail txiki bat izango dute etxe-atarian.

Berehala eraikitzen has-te da Altzagako Udalaren nahia, eta jadanik izen emate irekita dago (ez da Altzagatarrei mugatua).

Etxebizitza hauen salneurria 14.000.000 izango

dela aurrikusten da.

Informazio gehiago jaso nahi duenak Altzagako Udalera jo beharko du, han proiektua erakutsi eta behar diren argibide guztiak emango zaizkio (aurrez telefonoz deitzea komeni da, zenbakiak hauek dira 88 37 37 eta 88 11 70).

Pako Zubeldia

ZEGAMA

Datorren maiatzaren 25ean, 2. meza emango da Santu Espiritun. Lehenengo meza joan den urtean Xabier Azurmendik berak eman zuen eta aurtengoa bere oroimenez emango da goizeko 11.00etan. Ondoren hamaiketakoa eta trikitixa izango da guztien atsegine-rako.

Idiazabaldarrak San Adrianera

Datorren maiatzaren 25ean, ohitura zaharrei eutsiz, idiazabaldarrak izango dira San Adrianen. Ongi-etorria Zegamako agintariek emango diete Gurutze Santuan. Bertan makila trukaketa egin ondoren herriko plaza nagusian lore sorta bat eskainiko zaie. Bertan meza entzun

Santu Espirituko ermitan meza, Xabier Azurmendiren oroimenez



ondoren Zegamako txurrian hamaiketakoa emango zaie.

Zerralan elkarte

Zerralan elkartearen bazkide izan nahi duenak datorren maiatzaren 31 aurretik 25.000 pezeta ordaindu behar ditu Kutxan irekita dau-

kan kontuan.

Kirol emaitzak

Sokatira: Azpeitian jokaturiko Eskolarteko txapelketan, Aitzuriko neska alebi-nak 2. postua eskuratu zu-ten eta mutilak aldiz 3.a.

Futbito: Lazkaon Uda-

berriko saria jokatu zen eta mutil alebinak 3. geratu zi-ren.

Txirrindularitza: Ru-ben Zabaleta dugu Gipuzkoako txapeldun berria, Igo postua eskuratu baitzuen Billabonan jokatu zen las-terketan.

Pelota: Kutxak antola-tzen dituen Gipuzkoako Pi-lotaren II. Topaketan, Ait-xuriko 5. mailako ikasleek, Ormaiztegin jokaturiko jar-dunaldietan 2. postua esku-ratu zuten.

Atletismoa: Oreretan jo-katuriko Gipuzkoako fina-letan, Amaia Urbizu 8. ge-ratu zen, 2.000 metroko fro-gan.

Eduarne Albizu

ZALDIBIA

Juanba Erauskin intsumisoa epaitu dute



razi di-
nez, ez da-
go ados,
inolaz ere,
epaiketa-
rekin; are
gutxiago
inhabilita-
zioarekin,
eta borro-
kan segi-
t z e k o
prest da-
go. Mo-
mentu ho-

netan, Goiztiri euskaltegian egiten du lan.

Bestalde, Zaldibiko Uda-
la ere intsumisoa da joan
deneko bi-hiru legealdiotan.
Hori dela eta, herriko alka-
teari ere iritsi zaizkio zen-
bait zitazio. Juan Ignazio
Elizegi alkatearen esanetan,
adi egon beharko dute arazo
honek nondik nora jotzen
duen; dena dela, bere alde-
tik dezakeen guztia egiten
segituko du intsumisioaren
alde.

Donostiaren kontra 2-1

Bi eta bat irabazi zion Zal-
dibiak Donostiari, joan den
asteburuan, Gipuzkoako he-
rri arteko pilota txapelketa-

ko azken laurdenetako le-
hen partidua, estuasun han-
di samarrarekin bada ere.
Txikiek 18 bat irabazi zu-
ten; gure jubenilek galdu
egin zuten, baina 16 tanto-
ren jabe egin ziren, partidu
ikusgarria jokatu ondoren;
batez ere, Iraolak egin zuen
oso partidu konpletua eta
bikaina. Eskisabelek zorte
pittin bat gehiago izan balu,
irabazi ere aurki egingo zu-
keten. Handietan, 22 eta 21
irabazi genuen, 14 eta 21
galtzen joan ostean. Bukae-
ran lasaitu baginen ere, gure
nerbioek hartu zuten estual-
di ederra. Aurreko tantu
batzuetan ez bezala, hama-
laugarrenetik aurrera zortea
eta pilotan egiteko grazia,
biak, izan zituzten lagun.

Bueltako partiduak gaur
jokatuko dira Donostiako
Altza auzoan. Nahiz eta
momentu honetan tanteoa
Zaldibiak bere alde duen,
kanporaketa ez dago iraba-
zia eta dituztenak ematera
daukate joan beharra zaldi-
bitarrek. Bestalde, animoak
nork emana ere izango du-
tela uste dugu, jende askori
entzun diogu gaur hara joa-

teko kontua. Guk geuk ez
dugu joaterik izango, baina
GOIERRITARRAren ira-
kurleoi ez zaizue han gerta-
tukoari buruzko informa-
ziorik faltako.

Etxegarateren alde plataforma

Tolosaldea, Goierri, Nafa-
rroako Sakana eta Arabako
Lautadako alkateek "Etxe-
garateren aldeko platafor-
ma" deriotzaiona osatu du-
te. Zaldibia ere plataforma
horren barruan dago eta ha-
laxe egon da hasiera-hasie-
ratik. Plataforma honek mo-
mentu honetan Diputazioari
eskatzen diona, besteak
beste, zera da: Etxegaratek
ez duela izan behar inolako
erlaziorik Eibar-Gasteiz au-
topista egiteko planarekin,
eta, ondorioz, Etxegarateko
3. faseari ekiteko
10.000.000 pezetako diru
kopurua asignatzeko eskatu
dute. Plataformaren aldeko
alkateek, azkenik, esan dute
borondate politikoarik eza
nabarmentzen dela Diputa-
zioaren partetik.

Rufino Iraola

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elozegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 88 77 58 ☎ 88 72 79 ☎ 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

TOYOTA
GOIERRI AUTOAK



TOYOTA CARINA E
2.150.000 pezetatik

3 URTE
GARANTIA

24 ORDU
ASISTENTZIA

ORDIZIA

☎ 88 20 05 - 88 10 73

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozetegia

☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI

LEGORRETA

Festen ondoren Korputs eguna

Asteazken iluntzean jarri genuen gure gizon maitatua Udaletxeko balkoian eta bera izan zen igandera bitartean festetako gora-beheren testiguri preziatuena. Horrela hasi ziren beraz, hainbeste itxaroten genituen festak. Eta zer hobea festei hasera emateko Bilkoin elkartean ospatu zen koadrilen arteko afaria baino. Janedanarekin ondo asetu ondoren, majo berotu zituzten motorrak herriko gazteek. Afari hauxe izan ohi da ondorengo egunetan datorren ajetreoari begira entrenamendurik onena.

Osteguneko ekitaldirik garrantzitsuena nola ez, txorizo dastaketarena izan zen. Bezperako ajea laster ahaztu zuen jendeak txorizoak azaldu zirenean. Hango zalaparta txorizo mutur bat hartzeagatik! Harrigarria dirudien arren badakizue, debaldeko lekuan... Txiste lehiaketari buruz berri, ez dakit zer esan. Argi geratu zen behintzat, haurrak geroz eta espabilatuagoak datozela. Ume mutur zikin hauek dena baitakite! Esandako lizunkeria guztiak ez dakit non ikasi dituzten, doktrinaren ez behintzat. Ondoren Akelarrekin betiko moduan lau katu ibili ziren dantzan.

Ostiral goizean haur jolastokia izan genuen gazte txoenen gozamenerako. Eguerdian berri Zikiro jatea izan genuen Bilkoin elkartean. Bertan giro ederra bizi izan bazen ere, esan beharra dago Zikiro jatea galtzeaz egon litekeela geroz eta jende gutxiago doalako bertara. Urtetik-urtera partaidetza jaisten joan bada



ere, aurtan jaitsiera hori are eta nabarmenagoa izan da eta Zikiro jatea antolatzea kostatzen den dirutza ikusita, partaidetza igo ezean Bilkoin elkartek hurrengo urtean bertan behera utziko luke Zikiro jatearen antolaketa. Gauza jakina da parrandan ibiltzea ez dela apetitua pizteko hoberena, baina zerbait pentsatu beharko dugu horrelako ekitaldi berezi bat gal ez dadin. Aspal-di honetan Zikiro jatea izan da giro onena sortu duen ekitaldia eta pena litzateke herritarren pulamentu eskasagatik galtzea.

Arratsalde eta gau parte-

an jendetza ugari hurbildu zen herriko frontoira Play-Back lehiaketa ikustera. Partaidetza izugarria izan zen eta izugarritzko maila erakutsi zuten guztiek edo gehientsuenek behintzat. Argi geratu zen beste urte batez zein den festetako ekitaldirik garrantzitsuena. Backstreet Boys taldea nagusitu zen helduen eta baita haurren mailan ere. Aurtan gainera, Joaquin Cortes, Naomi Campbell, Rocio Jurado eta Ortega Canok osaturiko epaimahai berezi bat izan genuen lehen aldiz, epaitu baino gehiago gogotik zerbeza edan bazuten

ere. Play-Backeko aurkezleekin berri, ez naiz bada-
ezpada ere sartuko.

Larunbatean paella lehiaketa zela eta, herritar gehienak hurbildu ziren frontoira. Bazkalondoren, berri, mozzorro lehiaketari hasiera eman zitzaion. Aurtan lehen aldiz mozzorro lehiaketa arratsalde osora zabaldu zen eta erabaki hau egokia izan zen dudarik gabe, inoiz ez bezalako giroa bizi izan zelako arratsalde partean. Infanta eta Urdangarinen arteko ezkontza zela eta, xarmaz eta jende ospetsuz bete zitzaigun herria. Bartzelonako Katedralean ezkonduko ziren hotsa zabaldu bazen ere, azkeneko unean hobeto pentsatu eta erretore etxe aurrean burutu zuten ezkontza sentimental askoa. Erregearen ama ere zeharo emozionatu zen eta ez zen egun guztian aulkitik jaikitzeke gauza izan. Horrela, arratsaldetik goizalderarte mozzorro bitxi askoak ikus-
teko parada izan genuen.

Igandean Bilkoin eta Jota-Kea elkarteen arteko pilota partidua eta haurren danborrada azpimarratu behar dira. Gau partean, berri, Gizon Pikuak nahiko parranda egin zuela eta erre egin genuen. Horrela leher eginda baina oraindik juer-
ga egarritz festei amaiera eman behar izan genien.

Hala ere norbait festetarako gogoarekin geratu bada oraindik, hor daukagu Korputs eguna gain-gainean. Afari-meriendak on egin deizuela eta primeran pasa dezazuela eguna.

Josune Amondarain

Insausti Harria

Harridura handiz hartu genuen legorretarrok festetan Insausti Harria delako bat jaso behar zutenaren berria. Izan ere herritar gutxiak genuen Insausti Harri honen berri. Dena den, Insausti Harriaren aldeko batzorde bat ere sortu berria da eta festetan ikuskizunak piztu zuen ikusmina ikusita, ziur gaude harri honen entzuteak eta altxatze saioaren arrakastak luzaroan iraungo duela.

Larunbat arratsaldean jokatu zen txapelketa, 80 kilotik beherako harrijasotzaileentzat zen eta bertan Luis Telleria nagusitu zen 57 altxaldirekin. Garaileak txapela, Eusko Jaurlaritzaren garaikurra eta 50.000 pezeta jaso zituen. Gai-nontzeko harrijasotzaileek orden honetan sailkatu ziren: 2. Angel San Pedro 52 altxaldirekin, 3. J.A. Otegi 'Betelu' 47 altxaldirekin eta 4. Mixel Latasa 37 altxaldirekin.

Atsedendian Goenatxo harrijasotzaile azkoitiarrak saio polita burutu zuen harri ezberdinekin.

IDIAZABAL

Tradizioaren zita: San Adrian



Datorren igandean, maiatzaren 25a, goizeko 6:30etan kanpandorreko kanpakiak bueltaka hastea izango da seinalea: San Adrian eguna iritsi da berriro ere. Orduerdi beranduago, goizeko 7:00etan abiatuko dira autobusak. Mujika jatetxe paretik. Otzaurterainoko bidea egin eta handik San Adriango kobara oinez jarraitu beharko dute izaldirrek.

Idiazabalek partzone-rian duen parte hartzea segurtatzeko egiten da urtero erromeria hau. Bi mende-ko historia du, eta urteen

joanean gauza asko aldatu dira. Orain Otzaurterainoko bidea autobusez egiten bada ere, 1950 arte herritik oinez abiatzen ziren erro- mesak. Bertan gaur egun bezala, meza entzun eta Sancti Spiritum hamaiket-akoa egin ondoren herrira-ko buelta hasten zen. Otzaurtetik herrirako buel- ta ez da Etxegarartetik egi- ten, Zegama eta Seguratik barrena baizik. Bi herri ho- riek hamaiketako eskaint- zen die idiazabaldarrei. Auzoko herriei bisita egin- da Idiazabalgo parroki- an bukatzen da eguarterko fes- ta.

Arratsaldean Udalak ar- doa banatuko du, eta pla- zan mahaia jarriko dira bertan meriendatu nahi du- ten guztientzat. Udalak ur- tero bezala baleak banatu- ko ditu eta horiek ekaina- ren 1a baino lehen trukatu beharko dira herriko denda eta tabernetan. Udalak ja- kinarazi du bale horiek Udaletxean bertan ezin di- rela trukatu.

Neskak finalera

6. mailako nesken taldeak, Gipuzkoako futbol txapel- ketako finala jokatu du larunbatean, maiatzak 24, Donostian. Aurreko aste- buruan Lazkao San Via- tor taldeari irabazita lortu zuten neskek finalerako txartela. Maila bereko mu- tilak lehiaketatik kanpo ge- ratu ziren duela 15 egun Amezketaren aurkako par- tidua galdu ondoren.

Laburrean

● Sanjuanetan **Gazte Asanbladak** egin ohi duen jaialdirako dantzak pres- tatzeke entseiuak larunba- tetan izango dira, arratsal-

deko 6:00etan Guraso El- kartean

● Idiazabalgo **Abeltzai- nen Elkartea** martxan da dagoeneko. Elkartek bes- teak beste ganaduari iden- tifikazio txartela jartzeko asmoa du.

● HBk **Kultura-batzor- dea** utzi ondoren Xabier Imaz zinegotziak hartu du batzorde horren ardura. Maiatzaren 16an egin zuen bilera batzordeak.

● Maiatzaren 26an, astele- hena, izango da **emaku- mei zuzendutako hitzaldi** sortako azkena. Pilar Ar- mendariz psikologoak de- presioari buruz hitz egingo du. Kultur Etxean arratsal- deko 3:00etan.

● Ekainaren 1ean izango dira herrian lehen **jaunar- tzeak**. Maiatzeko loreeta- ko azken ospakizuna ber- riz, larunbatean. Aurreko igandean Gurutzetako Ama parrokiara jeitsi eta lore eskaintza egin zioten.

Xabier Urteaga

Ford

MUJIKA

BEASAIN ☎ 88 74 00

VICUNA Sport

Kale Nagusia, 11
☎ 88 93 17 **ORDIZIA**

GOIERRITARRA

☎ 88 96 12

IBAI-ONDO

**ZURGINTZA
ALTZARIAK**
P.V.C.ko LEIHOAK

Antzizar Auzoa, z/g
☎ 880543 **BEASAIN**

KEMEN KIROLAK

Zumalakarregi, 1
☎ 88 51 68
ORMAIZTEGI

LAZKAO

Etxebizitza berriak edonon



Konturatuko zineten jadanik, herriaren hainbat txoko desberdinetan etxebizitza berriak nola hasi diren erakitzen. Hirigoien auzoan etxe berriak amaitu bezain pronto hasi dira auzo berean beste batzuk eraikitzen. Hain zuzen, lan hauek bariantearen eta Zubizkitza auzoaren artean dauden lur-sailetan hasi dira, Ataunaldeko bidegurutzearen ondoren. Bi eraikin mota desberdin doaz lur-sail hauetan, bata etxebizitza kontzertatuak eta bestea etxebizitza sozialak.

Esan beharra dago etxebizitza kontzertatuak eraikitze lanak aurrera doazela, besteak baino lehenago hasi baitziren. 8 etxebizitza izango dira guztira mota honetakoak, lau 87,6 m² -takoak eta beste lauak berriz 72,3 m² -takoak. Bertan bizi behar diren 8 familiak aukeratuta daude jadanik, aukeraketa 35 eskaeraren arte-

an egin zen.

Etxebizitza sozialak berri orain dela gutxi hasi ziren eraikitzen eta espero da 1998-ko maiatzeko amaituak izatea. Etxebizitza hauek 6 mota desberdinetakoak izango dira, guztira 24 bizi-leku desberdin osatuz. Hauetako haundienak 89 metro karratu izango ditu eta txikienak berriz 57, beraien prezioa ere aldatu egingen da haundienetik txikienara, haundienak 7 milioi pasatxo balioko ditu eta txikienak jabe egiten direnei berriz, 4 milioi eta erdi kostatuko zaie gutxi gora behera.

24 bizi-leku dituen eraikin honen azpian lurrazpiko garajeak egingo dira eta etxebizitzak erosten dituztenek garaje plaza bat ere erosi beharko dute, milioi erdi inguru ordaindu beharko dutelarik. Lurrean markaturik dauden marra batzuz zatitutako garaje plazak izan-

go dira eta beste 40 garaje ere salgai jarriko dira.

Etxebizitza sozial hauek erosi nahi dituen ororentzat iraila aldera izena emateko epea zabalduko da, eta beharren arabera aukeratuko dira 24 etxe horiek beteko dituztenak.

Bestalde, ohartuko zineten, Zubizkitza auzoan lanean nola hasi diren. Lan hauek, etorkizunean txaletak eraikitze aurrez egin beharreko urbanizazio lanak dira. 60 milioi inguruko aurrekontua duten lan hauek, 6 hilabeteko epea dute bukatzeko. Beraz, aurki hasiko da baita ere 12 txalet bifamiliarren eraikuntza. Txalet hauek promotora pribatu batek egingo ditu lehengo txaleten eta Untxundei baserriaren artean.

Bake Epaile berria

Gaur, maiatzak 23, amaituko da Bake Epaile titular edo ordezkio izateko izena emateko epea. Lau urte pasa dira jada aurreko Epaile titularra eta ordezkioa aukeratu zirenetik eta iritsi da garaia hauek aldatzeko. Gaur arteko eskaera guztien artean aukeratu beharko dituzte epaile berriak. Aukeraketa hau Udaleko Osoko Bilkurari dagokio egitea legez. Esan beharra dago baita ere, inor aurkeztuko ez balitz Udaleko Osoko Bilkurak askatasun osoa izan-

go lukela aukeraketa egiteko. Beraz oraindik garaiz zaudete izena eman nahi baduzue, horretarako Udaletxeko Herritarrari Harrera eta Informazio Bulegora hurbildu zaitezke.

Kultur eskaintza

Udalak, Maizpide Euskaltegiak eta Goiherriko Euskal Eskolak antolatzen dituzten kultur ekitaldiekin jarraituz, ondorengo 15 egun hauetan ikus eta entzungai izango diren ekitaldiak ondorengo hauek izango dira.

Maiatzaren 28an: Pre-pirenaika ikusentzunezkoa, Luis Ignazio Gonzalezen eskutik. Ikusentzunezko hau Udaletxeko Areto Nagusian izango da gaueko 9etan.

Maiatzaren 27an: Hika antzerkia taldearen 'Hau komeria' Maizpideko Zinema aretan, 9:30etan. Goenkaleko Felix eta Amaia dira taldeko aktoreak.

Ekainaren 4an: Hegaztien migrazioa Euskal Herrian gaitzat hartuta hitzaldia eskeiniko du Migel Mari Elosegik. Hitzaldia Udaletxeko Areto Nagusian izango da arratsaldeko 7etan.

*Urko Irastorza
Koldo Urrestarazu*



- ✓ Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
- ✓ Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
- ✓ Eguneroko menua 800 pzt. Karta 2.000 pzt. batz bestea

MANDUBIKO BENTA

jatetxea

MANDUBIKO GAINEAN
Urolatik Goierriko bidean

Tfnoa.: 88 26 73

SEGURA

Txistulari guztiak elkartzeko asmoa



"Kriseilu" txistulari taldekoak 1971ko San Joanetako kalejira batean.

Gaur egungo "Kriseilu" txistulari taldeko batzuren inizatibaz, Seguran noizbait txistua jo duten guztiak elkartu eta "Elizondo" joaz kalejira egiteko asmoa dago. Hau, ekainaren 21ean egin nahi da, San Joan festetako pregoian. Horretarako, maiatzaren 17an egin zuten lehen entsaioa 30en bat lagunek. San Joanak arte, zapaturu entsaiatuko dute "Baratze" pelotalekuan 19:00etan. Gaur jotzen duten 40 lagun inguru kontutan izanda, inoiz txistua jo dutenak 200 inguru dira herrian, 10en bat kenduta, guztiak Joxe Mari Telleriak zuzendu izan duen "Kriseilu" txistulari taldeko partaide izanak. Ustez, denei bidali zaie gutun bat inizatibaren berri emanaz eta entsaioetara gonbidatuz.

Trinidad kofradia

Trinidad egunez, maiatzaren 25eko eta bezperako mezen ondoren, trinidad kofradiaz arduratzen diren Joakina Alustiza, Axun Gereñu eta Arantxa Aburuza, ospitalpean jarriko duten mahaiaren egongo dira, kofradekideei urteroko kibraketa egin (10 pezeta) edota kide

berriak egiteko (50 pezeta). Kofradekidea hiltzean, meza aterako zaio.

Korpus eguna

Prozesioa: Ekainaren 1ean, 11:00etako meza nagusiaren ondoren, korpus eguneko prozesioa izango da herriko kaleetan zehar. Korpus eguneko zortzikoa joko duen "Kriseilu" txistulari taldearen ondoren, San Francisco, Trinitadea, Jesusen Bihotza, San Jose, Ama errosariokoa eta Milagrosaren estandarteak joango dira. Hauen atzetik aingeruak eta prozesioari amaiera emanaz, palioa, azpian bikarioa kustodioarekin dela. Ibilbidean, Antonkalea aurrean eta Goiko portalen jarriko dituzten aldareetan, bi geldione egingo dituzte.

Ardo partiketa eta herri afaria:

Duela 15 egun, San Ixidro egunean egin zenaren modura, iluntzean Udalak eskainita, ardo partiketa izango da eta ondoren herri afaria plazan. Aurrekoan bezalaxe, Udalak txanbolinpen 180ren bat lagunentzako mahaiak eta aulkiak jarriko ditu. Afalondorena herriko trikitilariek alaituko dute.

Txirrindulari proba

Segurako Txirrindulari Elkartea antolatuta, 2. urteko kadeteentzako "II. Urbitarte" saria korrituko da ekainaren 1ean. Goizeko 10:00etan plazatik irtenda, Benta Txikin buelta hartuta, Zegama, Ordizia, Ormaiztegi eta Liernia pasa ondoren, 11:25 aldera amaituko da 52 Km izango dituen karrera. 120ren bat txirrindulari espero dira, horien artean Jon Garziandia herritarra.

San Joanetarako ere bi proba ari dira antolatzen: ekainaren 14rako jubenilena eta 21erako 23 urtez azpiko eta elite mailakoentzat Gipuzkoako txapelketa.

Futbola

Errejonalek duela 2 aste amaitu zuten liga. Igo errejonaleko lehen denboraldia 9. postuan amaitu dute.

Asteburuko emaitzak:

Infantilak: Aizkorri 1-0 Almen. **Kadeteak:** Ligan 5. geratuta, Gipuzkoako kopa jokatzen ari dira: Aizkorri 2-1 Tolosa. Hurrengo Idiazabalena kontra izango dute. **Jubenilak:** Lazkao 2-2 Segura.

Asteburuan etxean: Jubenilak: Segura-Urola, zapatuan, 15:30etan. Ondoren, 17:30etan, 2. errejonaleko finala jokatuko dute Azkue nek eta Azkoitiak.

Labur labur

● Maiatzaren 15ean eman ziren jakitera San Joanetako egitarauan azalduko diren argazkiak. Aloña Elorza, Lierni Elorza, Jaione Telleria eta Joseba Telleriarenak izan ziren aukeratuak.

● Maiatzaren 18an, Uxue Arostegik, Ixiar Elorzak, Naroa Izagirik, Nerea Ima-

zek, Sonia Pereirak, Etor Telleriak, Joseba Larrartek, Agurtzane Agirrek, Olaia Mansok, Ixiar Intxaustik, Jose M^a Alfonsok eta Alex Rekondok konfirmazioa egin zuten. Bezperan afaria izan zuten Beasainen.

● Kirol eskolarrean, Goierri mailako Udaberriko txapelketaren barne, mutil alebina txapeldunorde geratu ziren futboleak. Txapelketa bererako, atletismoan, maiatzaren 30ean Ordizian izango den 60 metroko finalerako, neska benjaminetan, Naiara Oiarbide dago sailkatua.

● Maite Telleria pisu jaurtitzaileak, maiatzaren 31n Gasteizen izango den Euskadiko txapelketan parte hartuko du.

● Gipuzkoako bola txapelketa bukatzeko Urnietako maiatzaren 25eko saioa besterik falta ez denean, Xepiñ Agirrek Igo jarraitzen du sailkapenean (735 birla) eta Martxeliñ Agirrek 2. (735 birla). Jokin Izagirre 6. dago, Antonio Agirre 9. eta Joakin Izagirre 18.

● Guraso talde batek zuzenduta, San Joanetako umeen danborradarako, astelehenean, asteazkenean eta ostegunetan, 18:00etan izango dira entsaioak, Baratze Pelotalekuan. Aurtengoan, umeen danborradan Igo aldiz, "Segurako alborada" jotzeko asmoa dago.

● Aurtengo San Joanak, os-tiralean, ekainaren 20an hasiko dira. Herriko tabernek eta txosnek ordainduta musika taldea izango da. Beraz, 6 eguneko festak izango dira. Jai batzordearen 4. bilera datorren astean egingo da.

Joseba Telleria

ATAUN

Garapen plana (II): herriaren etorkizuneko irudia

Plan honen azalpenari berriro helduz, hona hemen aukeratutako lau ardatz edo eremu buruzko xehetasun gehiago:

✓ **Bizimodua hobetu eta herria berritu:** bertakoon-tzat herria bizitzeko txoko aproposa izan dadin; eta era berean, kanpotarrentzat ere Ataun erakargarria gerta dadin, bertan bizitzeko edo egonalditxoren bat edo besterako. Horrek eskatzen du herrian zerbitzu egoki batzuk edukitzea, bai kopuru aldetik eta bai kalitate aldetik. Zentzu honetan, hauxe da Planean proposatzen dena: 1. Udala/herritarrak harremana sendotu: honi dagokionez, dagoeneko mar txan dago 'Udalberri' aldizkaria. 2. Etxebizitzak eraiki (babes ofizialekoak egiten ari dira). 3. Garraio publikoa hobetu: datorren uztailetik aurrera zerbitzu hau egokia izango dela espero da. 4. Zerbitzu orokorrak bultzatu: oinarritzoei eustez gain, beste batzuk sortu. Asteleheneroko azokak, adibidez, zerbitzu berriak ekarri ditu.

✓ **Kultura, aisialdia eta turismoa bultzatu:** etorkizunari begira, aberastasun eta lanpostu iturri bezala eduki dezaketen garrantziagatik. Kultura eta naturan oinarritutako turismoaz ari da Plana; kultura eta natura errespetatzen dituen turismoaz, dena den. Bestalde, kultura eta aisialdia ere bultzatuz, bertakoon bizitza kalitatea eta ongizatea gehitzea da asmoa. Hor ditugu adibide gisa: 1. Herribide Zaharra pasealeku bezala egokitu izana. 2. Ataungo kobetarako bisita



San Isidro eguneko feria berreskuratu genuen maiatzaren 15ean. Partaideen kopurua apala izan arren, aipatzekoak dira benetan jarri ziren postuak, presentazio aldetik oso dotore eta txukunak, eta erakutsitako baserriko emaitzen kalitate aldetik, bikainak.

gidatuak eta Joxemiel Barandiaranen inguruko ibilaldi tematikoak (ejekuzio bidean dagoena)...

✓ **Nekazaritza:** ezin ahaztuko dugu Ataun betidanik nekazal herria izan dela, baserritar eta artzaiei herria. Horregatik, eremu honi me-

rezi duen garrantzia ematen zaio Planean: 1. Bideak konpondu. 2. Nekazarietaz heziketa eta orientazioa eskaini: labelari buruz, landaketa errentagarriari buruz... 3. Turismoari lotutako irtenbideak bultzatu: agroturismoa, baserrietara bisitak...

III. Ataun aztergai beka

Udalak III. Ataun aztergai beka deialdia ireki du. Ataun aztergaitzat harturik herria bere arlo desberdinetan lantzen eta aztertzen duten ikerlanak aurkeztu ahal izango dira: historikoak, etnologikoak, soziologikoak, pertsonaiak...

Uztailaren 15a baino lehen lanaren proiektua aurkeztu beharko da Udaletxean. Astebetera aukeratuko du epaimahaiak lanik onena. Lana taldean edo bakarka egindakoa izan daiteke. Proiektua aurkezteko aurkezle bakoitzak Udaletxean jaso beharko ditu behar diren sobreak eta fitxak. Lana abenduaren 15erako guztiz amaitua eta Udalaren esku egon behar du. Lanak gutxienez 50 orrialde izan behar ditu eta gehienez 150. Beka 200.000 pezetakoa da eta lana amaitu ondoren emango zaio egileari.

Epaimahai hauek osatuko dute: Kultura-batzordeko arduradunak, Joxe Miel Barandiaran ikastetxeko zuzendariak, J.M.B. Murkondoko kultur elkartearen lehendakariak, Artadi kultur elkarteak eta zenbait adituk. Epaimahaiak, aurkezturiko proiektuek mailarik ematen ez dutela erabakiko balu edota hautatutako lanaren emaitza ez dela egokia, hutsik utzi ahal izango du beka. Saritutako lanaren jabetza eta eskubide guztiak Udalaren eskutan geldituko dira, hala nola bera lantzeko erabili diren dokumentazio, grabazio nahiz argazki.

✓ **Industria erakarri: parke "eko-teknologikoa".** Natura eta ingurugiroa erabat errespetatuko dituen industria bertaratzea; hau da, natur baliabideen erabilpen edo ustiapen kontrolatua suposatzen duen industria (lanpostu sortzaile bezala duen indarra gogoan hartuz). Zentzu honetan, adibide argiena ura enboteilatze plantarena dugu.

Udala intsumiso

Joan den maiatzak 12an epaitu zuten Donostiako epaitegian Sagrario Eskisabel (aurreko legegintzaldian alkatea izandakoa), bere garaian ejerzitoarekin kolaboratzeari uko egin ziolako. 1991. urteaz geroztik, Udalak ejerzitoaren aurrean intsumisio jarrera honi eutsi izan dio eta hori dela eta, orain desobedientzia delitua leporatzen dio fiskaliak alkate izandakoari, 2 urtetako inhabilitazioa eta 300.000 pezetako multa jar diezaioten eskatuz.

Labur-labur

● **Zikloturisten hurrengo bi irteerak** hauetxek dira: maiatzaren 25ean Ataun-Errazkin (92 Km) eta ekainaren 1ean Ataun-Abarzuza (110 Km). Irteera ordua: 8 t'erdietan.

● **Heriotza baten berri:** Hirubideko Bittor Eskisabel Begiristain hil zen maiatzaren 18an, 68 urte zituela. Bere sendikoekin bat egiten dugu euren nahigabea.

● **6 neska-mutilen jaunartzea** izango dugu datorren igandean, hilak 25, herrian. Egun zoriontsua izan dezatela!

Josune Aldabe

GABIRIA

Ur hornidurako proiektua aztergai



Gabiriako Udaletxea.

Udalak, Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren bidez, Mutiloako depositu berritik ura ekartzeko asmoa du Kanpo Santu inguruan dagoen depositura, herri inguruko etxeetara banatzeko. Proiektu honen ondorioz, orain arteko Itur-Gorriko ura hartzeari utzi egingo litzaioke eta Mutiloatik da-

karten ura bakarrik banatu.

Mutiloako depositua Gabiriakoa baino beherago dagoenez, bonbeatu egin beharko litzateke, baina, bestalde, ur hori jadanik tratatua dagoenez, Udalak ez luke berriro tratatu beharrik izango lehen Itur-Gorriko urarekin egiten zuen

bezala.

Lan hori burutzeko epea bost hilabete ingurukoa da, hau da, abuztu edo irail alderako dena bukatuta edukitzea pentsatzen dute.

Aurrekontuari dagokionez, aurreikusten den gutzitiko diru-kopurua 30 milioi eta erdikoa da.

Makilari aldizkaria

1992ko abuztuaren lehen argitaratu genuen "Makilari" aldizkariaren lehenengo alea eta geroztik bost urte eskas igaro diren honetan kaleratu da zortzigarrena. Urte hauetan zehar bidea nahiko urratu du jadanik aldizkariak eta zailena egin da dagoenez aurrera begira baikor gaude gabiriarrok luzaro izango dugulakoan esku artean.

Herritarrek jadanik jaso badute ere, herritik kanpo bizi direnei jakinarazi behar diegu eskuratu nahi izanez gero udaletxera deitu eta doan edo debalde jaso ahal izango dutela, Udalak ordaintzen baititu argitalpen-gastuak Kutxaren laguntzaz.

Jaunartzeak

Joan zen maiatzaren 18an ospatu ziren gure herrian lehenengo jaunartzeak eta aurtengoan bi mutil eta neska bat izan ditugu aldarre aurrean Jauna lehenengo aldiz hartzeko prest, hain zuzen ere, Jokin Sudupe, Maialen Igarzabal eta Mikel Asurabarrena gazteak. Zorionak hirurei eta beren senitartekoei.

Gabino Murua

EZKIO-ITSASO

Ezkioko agerpenei buruzko liburua

Willian Christian antropologo eta idazle iparamerikarrak bere azken liburua, "Las Visiones de Ezkioga" liburua aurkeztu zuen maiatzaren 9an Santa Lutzi auzoko Kultur-Etxean.

Aurkezpen honetan, Willian Christianekin batera, Isabel Olanga Ezkio-Itsasoko alkatea, Idoia Estornes Historiatzailea, Iñaki Mendiguren idazle ezkiotarra, Anttoni Etxezarreta garai hartan gertaturikoaren lekukoa eta Iñaki Baztarrika moderatzailea aritu ziren. Ikusleen artean, kultur munduko hainbat pertsonai eta herritar ugari bildu ziren.



Bertan azaldu zenez, 30. hamarkadaren hasieran milaka pertsona hurbildu ziren Ezkio aldera bertako agerpenen ondorioz. Willian Christian beraren esanetan, urte batean milioi

bat pertsona igaro ziren Ezkio aldetik. Partaideen esanetan, Europako hainbat lekuetan gertatu izan dira honelako fenomenoak, baina Ezkiokoak bere garaian izan zuten garrantzira iritsi ga-

be.

Gehienen ustez, Ezkioko agerpenak jendearen artean izan zuten arrakastan zer ikusi haundia zuen garai hartako giro nahasiak, kon-tuan izanik guda zibilaren atarian gertatu zirela agerpen hauek.

Willian Christian idazleak zionez 12 urteko ikerketa lanaren ondorioz argitaratutako liburu honek, Ezkioko agerpenen inguruan gertatu ziren ekintza guttien kontakizun bat egitea du helburu. Beti ere garai-ko egoera politiko soziala eta erlijiosoa ahaztu gabe.

Ezkioko Udala

ORMAIZTEGI Paskualek biziki eskertu zuen omenaldia



Paskual Larrañagari urte luzeetan parrokiaren eta herriaren alde borondatez egindako lana biziki eskertzeko asmoz, omenaldi herrikoia eskaini zitzaion. Omenaldi xumea, herrikoia, musika guztiona egiten jakin izan duen Paskuali bihotz-bihotzez eskainia. Adin guztietako bai herritar baita kanpotarrak ere, Ormaiztegira hurbilduz, Paskualentzako hain handia izan zitekeen egunean bere inguruan egon nahi izan zutenak asko izan ziren.

Goizean goiz, Paskualengandik txistularitzaren nondik norakoak jaso izan zituzten ikasleek elkarrekin bat eginez maixuari sentimenduz beteriko kalejira eskaini zioten. Eguraldi txarra ere ez zen beraientzako aitzaki izan, horrelako egun batean euri jasez bustitzeak merezi zuen. Kanpoan bustia eta lainoa nagusi izan bazen ere, ikasle haien eta herritarron barrenean Pas-

kualekin igarotako urte luzeetako oroitzapen onak bero-beroan izan ziren. Ormaiztegiko kalejiretan makina bat aldiz eskuak ia izoztu arte txistua eta danborra jotzen aritu izan den Paskualengatik, guztia eman zuen Ormaiztegiko kaleak musikaz alaituz aritu zen belaunaldi desberdinetako txistulariez osaturiko talde hark. Gainera Paskualek erakutsia bizirik dirauela konturatzeke ere balio izan zuen, beraiek zioten bezala ekitaldi honek ez du aldi baten amaiera izan behar, berri baten hasiera bazik; hain zuzen aurrerantzean ere horrelako musika ekitaldiak antolatzea izango baita Paskualek ereindako haziak eman dezakeen uztan emankorrena.

Ondoren 12.00etan Meza Nagusia izan zen. Paskualek mezetarako bidea kalejira giroan egin txistulari eta senditarrez inguratutik. Meza Nagusia herriko azken bi

erretoreek zuzendua izan zen, hau da, Joxek eta Clementek.

Horrenbeste urteetan organo doinuz parrokia musikaz jantzi izan duen Paskualen omenaldi egunean berak merezi zuen bezalako musika sentikorrik ere ez zen falta izan, hain zuzen parrokiaren izan zen Zarautik hurbilduriko abesbatza. Baina musika giroa ez zen eliza barruan amaitu, elizatarira irten bezain laster, bere ikasle txistulariek maixu Paskuali 'Agur Jaunak' eskaini zioten, abestia amaitzean maixu eta ikasleek esker oneko besarkada batean bat egin zuten.

Parroki inguruko aipatu ekitaldiak amaitu ondoren, Itxune Jatetxean 170 pertsona inguruk parte harturiko bazkari herrikoia ospatu zen. Bazkari osoa girorik onenean ospatu zen, amaieran Paskualek bihotz-bihotzez eskaini zitzaizkion opariak jaso zituen. Erakunde eta herritarrek badakite ezinezkoa dela urte guzti hauetako esker onez egin zizkien opariak hauek izan ziren: Parrokiak eta bazkarian izandakoen izenean musika kate bat; Udalak zilarrezko poltsikoko ordulari eta bandeja bat; herriko txistulariek Telleriak eskuz margoturiko bere irudia duen koadroa bat, bertso polit batez lagundurik; Txistulari Elkarteak bidali-

V. San Andres Pala txapelketa

Aurtengoa V. San Andres txapelketa izango da. Iaz bezala, aurten ere 22 bikotereren partaidetza mantentzea lortu da. Txapelketa maiatzaren 19an hasi zen eta San Juan inguruan etengo bada ere, gero berriro jarraituko du. Finala San Andres egunez jokatu da. Partiduak astero hiru egunetan jokatuko dira, astelehen, ostegun eta igandez. Azken bi urteetako irabazleak Merzero-Azkarate eta Olaran-Aranburu izan dira.

tako oroigarri bat eta Eusko Jaurlaritzako ordezkari bezala omenaldian izan zen Mari Karmen Garmendiak serie numeratu batetako 'Besarkada' deritzan eskultura.

Paskual eta bere senditarrek egun guztian zehar biziki eskertu zuten berari egin zitzaion omenaldia. Dena den, berarenganako esker ona adierazi zutenak asko izan zirenez, eta senditarrei banaka eskertzea ia ezinezkoa gertatu zitzaieenez, lerro hauen bitartez eskerrik beroenak bidaltzen dizkizue Paskual Larrañagak, baita emazle Malenek, eta seme-alaba Malen, Joxe Mari, Mari Karmen eta gainerako senditar guztiek.

Aitziber Murua

Argitarapen honen edizioa laguntzen:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

'Navarro' Beasain aldatu duen entrenatzailea

B easain futbol taldea sailkapenean behera zegoen. Zuzendaritzak, bultzagarri baten bila, Arakistain entrenatzailea kendu eta Manuel Diez 'Navarro' jarri zuen. Honek taldea hartuz gero partidu bakarra galdu du. Entrenatzaile izan den partiduetan puntu gehien atera duen bigarren taldea izan da eta sailkapen nagusiko 7. postuan bukatu du liga.

- Zein balarazio egiten duzu, zure lanaren inguruan?

- Lan ona da egindakoa eta oso gustora nago. Lan asko kostatu da baina merezi izan du, momentu honetan gauden lekuan egotea pozik egotekoa da.

- Erabili dituzun jokalariek, Arakistainek erabiltzen zituen berdintsuak dira. Zertan aldatu da taldea?

- Ni taldera iritsi nintzenen, nere ikuspegitik ados ez nengoen zenbait gauza aurkitu nituen. Gauzak beste era batera egin nahi izan nituen, jendeak uler zezala egoera, talde lana egin zezala eta ez bakoitza bere alde-tik joan. Zaila da talde batera denboraldia hasita iristea, ez dago askorako denborarik, ez du probak edo aldaketak egiteko aukerara gehiegi ematen. Puntuak igandero izaten dira jokoan eta arazo handiena denborarena da. Dena den, blokea mantendu dudana arren, plantilako jokalariek guztiek izan dute beraien aukera.

- Etabaidagai da, hobe ote den 2.B mailan kanpoko jokalariekin edo 3. mailan bertako jokalariekin egotea. Zer diozu honi buruz?

- Nik badakit jokalariek etxeak edo ingurukoak izango balira hobe izango zela denentzat. Merkeago aterako litzateke, jende gehiago inguratuko luke, Goierri osoa gehiago konprometituko luke. Baina, maila honetan ibiltzeko inguruan nahikoa jokalariek ez badago, kanpoan aurkitu behar dituzu, maila duin bati eusteko.

Momentu honetan Beasainek duen mailaz disfrutatu behar du. Nahiz eta kostu altuagoa izan, honetan herriak, bazkideak gehiago konprometitu beharko lirateke, beraientzat onura baita futboleko brontzezko kategorian egotea. Geroz eta sozio gutxiago dago eta horrek, zaildu egiten du aurrekontua aurrera ateratzea. Baina 3. mailara jeisten pentsatzea ez zait bidezko iruditzen. Jeistekotan, futbol zelaian egindakoarengatik izan dadila eta ez beste interesengatik.

Ezaugarri hauetako talde batek, jendea behar du, inguruetan balio izan dezaketen jokalarien bila ibiltzeko. Entrenatzailea ezin da denora iritsi. Ez dago igandez igande inguruko partiduak jarraituko duen inor eta arazoa larriagoa da.

- Beasainen jubeniletatik talde nagusira salto handia dago. Ez al litzateke akordioetara iritsi



behar Goierriko beste taldeekin, bertan jubenil horiek, piska bat kategori handietara ohitzen joateko?

- Gai hori piska bat herren dago, azpiegitura aldetik, Beasainek ez du terrenorik, instalakuntzarik, oinarritzko futbolak lekua izateko. Zelaia bakarra dago. Jendea behar da horretarako, ez zuzendaritza bakarrik, baizik eta lan egiteko prest dagoen jendea, ezagutzak dituen jendea. Oinarritzko futbolearen borondate asko izan arren ezagutzarik ez badago beti akatsak egiten baitira.

Eskualdeko beste taldeekin akordioetara iristea berriz, oso gai konplikatu da. Tamalez, herri arteko eta pertsona arteko ezineraman asko dago. Ez dago dudarik neri hori dena konpontzea gustatuko litzaidakeela, batez ere futbolearen ari diren mutikoen mesedetarako, jarraipen bat izan dezaten.

- Hurrengo denboraldirako akordioaren bat bala duzu zuzendaritzarekin?

- Badakit beraiek interesatuta daudela nik jarraitzearekin. Neri ere ilusio handia egingo lidateke jarraitzeak. Orain hitz egin behar da, ea

akordio batera iristen garen.

- Jarraitzekotan, zein planteamendu eta helburu izango dituzu?

- Lehenik, jarraitzen dudana ikusi behar da. Baina, plantilan aldaketaren bat egitea gustatuko litzaidake. Zenbait postu piska bat herren baitaude.

Hala ere garbi dut maila bat duten jokalariek ekartzea zenbat kostatzen den.

Helburuen aldetik, futbolearen 2+2 ez dira beti 4. Nik taldea hartu dudana izan duen maila denboraldi guztian izanez gero lehen posturako borrokan arituko ginen. Baina hori horrela ezin bada esan ere, talde hau eta errefortzu pare batekin urrutira iritsi gitezke.

Entrenatzaile bezala zein helburu dituzu?

- Nik oinak lurrean ditut. Hau nere bizitzako etapa eder bat da. Helburua talde profesional bat zuzentzea da, baina, hori oso zaila da. Nere hobbia entrenatzea da, eta nere lanbidearekin batera egin badezaket oso ondo.

Bide batez, zuzendaritzari neregari jarri duen konfidantza eskertu nahi diot. Neregari fidatu eta lagundu didaten guztiei eskerrak eman. Bere garaian neregari konfidantzarik izan ez zutenek, iritzi errazak eman aurretik piska bat pentsatu dezatela. Eta futbol zaletu guztiak animatu eta etor daitezela igandetan Loinazera, merezi baitu.

Igor Sarriegi - Mikel Albisu



1975ean jaioetako idiazabaldarrak

Eskolaurreko 3. mailan zebiltzanean ateratako argazkia da honakoa. Aloña Imazek utzi digu. Gaixo zegoela eta, Ainhoa Mujika falta da. Besteak hauek dira:

Goitik behera, ezkerretik eskubira: Izaskun Lizarralde, Imanol Artola, Jokin Mujika, Iñaki Goiburu, Aner Elorza, Lierni Otaegi, Aloña Galarraga, Lurdes Mintegi, Aloña Barandiaran, Izaro Goikoetxea, Loinaz Urretarazu, Jose Inazio Ormazabal eta Nati (irakaslea).

Bigarren ilaran: Garikoitz Urkia, Izaskun Goiburu, Abel Goiburu, Xabier Goya, Joseba Iparragirre, Iñaki Zabaleta, Joseba Oiarbide, M. Angeles Lezeta, Aloña Imaz, Beñat Oiarbide, Jose Santana eta Eider Katarain.

Hirugarren ilaran: Elena Arriaran, Irantzu Telleria, Aloña Sarasola, Leire Elorza, Isabel, Rebeka Mujika, Ainhoa Loza, Amaia Mendizabal, Iñigo Albisu, Begoña eta Garbiñe Arrizabalaga.

Lurrean eserita: Eneider Luzarraga, Nagore Nograro, Naiara Mujika, Kontxi (irakaslea), Igor Serrano, Asier Alustiza, Ainhoa Imaz, Gurutze (irakaslea), Ainhoa Garmendia, Izaskun Aierbe, Azu Pedrazuela eta Leire Goiburu.

**EZ EROSI ZURE
PROGRESIBOAK
ITSU ITSUAN**



Urrutira eta hurbilera betaurreko berekin bikain ikusteko ez dira aski kristal progresibo onak. Hoberenak behar dira: VARILUX, oso ongi graduatuak eta aditu batek egokituak: MULTIOPTICAS.

Horregatik, VARILUX MULTIOPTICASekin fidatzen da eta MULTIOPTICASEK VARILUX gomendatzen du.

Ez erosi itsu itsuan.

**19.500 pta.tik
aurrera**



MULTIOPTICAS kreditu txartelarekin ordain ezazu nahi duzun moduan eta unean.

**VARILUX BEZALA
FIDA ZAITEZ
MULTIOPTICASekin**



MULTIOPTICAS

ZERBITZU OPTIKOETAN 1a

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA: Ibargarai, 16 - Tel. 76 15 75 - 20570 BERGARA
Juan Carlos Guerra, 1 - Tel. 79 29 95 - 20500 ARRASATE
J. M. Barandiaran Enparantza - Tel. 88 99 88 - 20240 ORDIZIA

MULTIOPTICAS EIBAR: Bidebarrieta, 2 - Tel. 20 05 22 - 20600 EIBAR

Azteazkena,
hilak 28,
zabalduko ditu
ateak

Pryca *Goierri* *Berrria*

Orain,
askoz Gertuago

Askoz gertuago eta eskaintza zabalagoarekin;
kalitatez gainezka eta prezio erakargarriekin. Egia esan, Prycan espero
duzun guztia aurkituko duzu, ziur izan.

Estrenatu ezazu,
Olaberriko Pryca Goierri berria, zeurea.



GOIERRI